

innobasque

berrikuntzaren
euskal agentzia

agencia vasca
de la innovación

2. txostena

2013

Otzarretak egindako azala

CLEAN **TECH** now!

Teknologia garbiak,
zure lanbide-etorkizuna

DONOSTIA · **apirilak 9**



IKASLEENTZAKO BERRIKUNTZA TAILERRA

- Metodologia dibertigarria eta ezberdina. Irtenbideak eta prototipoak sortzen ikastea.
- Teknologia garbiko enpresen benetako 10 kasu. Energia, garraioa, urak, gai edo materialak, birziklatzea eta IKTak.
- Diziplina edo jakintza-arlo anitzeko lantaldeak. Hainbat titulazio, unibertsitate eta LHko ikastetxe.



NEGOZIO BERRITZAILEEN PROIEKTU LEHIAKETA

- Teknologia garbietan oinarritua.
- Lehen urteko Alumni eta ikasleentzat.
- Banaka edo taldean.



DONOSTIAKO
SUSTAPENA
FOMENTO DE
SAN SEBASTIAN



Sustatzailea:

inno**basque**



editoriala 4-5

2 minututan 6-7

seihilekoko protagonistak 8-13

berrikuntza-apunteak 14-17

innobasque albisteak (1) 18-21

5 gako ... 22-23

innobasque albisteak (2) 24-29

sarean 30-31

honako hau partekatu nahi dut 32-33

innobasque albisteak (3) 34-37

euskal berrikuntza sare sozialetan 38-39

munduari bira berrikuntzaren bitartez 40-43

berrikuntzarako guneak 44-45

innobasqueren balioa ... 46-47
gure bazkideak



e

Helize bizi laukoitza

Berriki argitaratu dira 2014ko RIS (Regional Innovation Scoreboard) eta IUS (Innovation Union Scoreboard) txostenak. Erreferentziako bi agiri dira berrikuntzako europar sistema osatzen dugunontzat. Lehenak 190 europar erregioren berrikuntza-intentsitatearen berri ematen du (nahiz eta Europak 274 erregioren kontua egiten duen, baina guztiek ez dute berrikuntzako beren jarduera neurtzeko sistemarik), eta bigarrenak 28 estatu bazkideak ebaluatzen ditu. Komunikabideetan agian irakurri ahal izan duzunez, RISek Euskadi "berritzaile nabarmenen" arloan kokatzen du (followers agiriaren jargoia erabiliz gero. Eutsi egiten diogu geure posizioari, eta hori ez da gutxi gaur eguneko testuinguruan.

Mezu honi europar agiri horien aipamena eginez eman nahi izan diot hasiera, zeren

eta nola haien edukia hala Batzordearen eszenaratzea mezu argi eta garbi bat helarazten ari baita: berrikuntza funtsezkoa da gure berreskurapenerako. Ez da gertatu halabehar hutsez txostena 3 komisariok aurkeztea: Antonio Tajani, EBeko presidenteordea (Industria eta Ekintzaitza); Máire Geoghegan-Quinn (Ikerkuntza, Berrikuntza eta Zientzia) eta Johannes Hahn (Erregio eta Hiri Politika). Hiru aldeko aurkezpen horrek indartu egiten du, alde batetik, berrikuntzaren zeharkako dimentsioa, eta, era berean, agerian jartzen du Europarentzat duen dimentsio estrategikoa, izan ere hil-edo-biziko faktorea da gure ongizaterako. Ildo horretatik, ez da oso zaila komisario horien adierazpenekin bat etortzea, zeinetan enpresa ekintzaile gehiago eskatzen baitzituzten, eta europar ideia handiak negozio errentagarri bihurtzeko beharrezko



Alberto García Erauzkin

Innobasqueko Presidentea

tentsioari eustea, lanpostuak eta hazkuntza jasagarria sortuko dituztenak.

Era berean, ezin diogu ez-ikusi egin txosten horiek egiten duguten alertari. Europa bere inertzien mendean dagoela eta XX. mendean funtzionatu duten ereduak auzitan jarriak daudela konkurrentzia berri eta disruptibo baten aldetik, zeinen irismena oraindik ezagutzen ez dugun. Ea agertoki konplexu honek ondorio positiboak dituen eta beste behin balio duen europar bezala irismen globalarekin jokatzeko dugun behar larria berresteko eta, ondorioz, geure partida jokatzeko premia indartzen duen. Gure dimentsio eta gaitasunen arabera dagokiguna, zeren eta Johannes Hahn-ek zioenez "erregioek beren pisu ekonomikoa ustiatu beharko dute eta metodo berritzaileak garatu mundu-mailako konkurrentziari aurre egiteko".

Hori esanik, aurrean dugun erronkaren izatasuna aitortzea besterik ez dagokigu, zirkunstantzia bakoitzetik, erakunde bakoitzetik, baina beti geure sormenaren ekarpena eginez, eta geure talentua aktibatuz. Eta horren lagin bat gaur zeure eskuetan duzun txosten honetan aurkezten da, zalantzarik gabe oso bestelakoa aipatuko europarren aldean, eta agian aurrekoekin alderatuta zertxobait desberdina ere bai, zeinen helburua Innobasqueren bazkide-sarearen ahalmena helaraztea baita. Ildo hori sakonduz joango gara, gure sareak bere baitan dituen gaitasunak, erakundeena eta pertsona berritzaileena, zeinak ari baitira euskal gizarte dinamiko bat marrazten, aukera berriak eraikitzen dituen, gure ereduaren bitartez, helize bizi laukoitza administrazioak, ikerkuntzak, enpresak eta hiritargoak osatua, zeinek bere baitan

baititu txertatuak XXI. mendeko berrikuntzarako osagai kritikoak.

Horretarako guztirako, Innobasque leku egokia da, beraz jarduera-txosten honen kontrazalean ageri den bezala, batzera bultzatzen zaitut, oraindik proaktiboagoa izatera, eta inoiz baino bizitasun gehiagorekin proiektuarekin elkartzera.

Ez nuke itxi nahi testu hau Innobasqueko Zuzendaritza Batzordearen esker ona, eta neurea ere helarazi gabe neure aurrekoei, Pedro Luis Uriarteri eta Guillermo Ulaciari, bide-urratzaile izan ditudanoi. Innobasqueko bazkide jauna eta andrea, zeure eskura naukazu, eskerrik asko konfiantzarengatik, zure berrien zain.



2 minututan



- > Bigarren seihilekoa zenbakitan: 8.000 pertsona mobilizatuta, 1.311 eragina prentsan, 40.315 profilak sare-sozialetan, 134 bideo berri youtube-n, 30 berri aurkezpen slideshare-n
- > **Ikas-Ingurune Komunitarioen Laborategia** sortu da Euskadin, Estatuan aitzindaria
- > Herri-partaidetza eztabaidagai. "Partaidetzaren korapiloak" argitalpenaren aurkezpena

> Europan euskal I+G+b-ren bidea diseinatuz: **2014-2020 Koaderno Estrategikoa** sortzeko lehen pausoak

> Babes juridikoan berrikuntza egiten: **lankidetzazuzenbidea** Euskadira iritsi da

> **Global Training Bekak** piramidearen oinarrira hurbiltzen ari dira

> **BWater**, honar-uren kudeaketan eta tratamenduan "made in Euskadi" berrikuntza



> “Economic power of cities”: euskal 6 enpresa lankidetzan ari dira maila globalean lehiatzeko **hirien eraldaketa-barrutian**

> Innobasqueko Enpresen Azeleragailuak seilua eman dio **Ideable Solutionsi**

> Hiritarrek osasunaren alde egiten dute apustu: **berritzaileak diren 3 proiektuk** dirua lortu dute Crowdsasunaren bitartez



> **Iñigo Urkullu** lehendakariak, **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren XIII. Asteari** hasiera eman dio

> **8 enpresa** berrikuntza-taldetan lan egiten hasi dira. “Berrikuntza Ekipoak eraldaketa-tresna gisa” proiektuaren edizio berria

> **Brunch&learn** ekimena abiaraztea, Innobasqueko kideen eta kideentzako ezagutza espezializatua

> **Berrikuntza etengabe aurrera: 23 erakunde berri** gehitu zaizkio Innobasque sareari

seihilekoko

pro tagonistak

Europar Batzordeak saritu egin du zahartze aktiboaren alde Euskal Herriak egindako lana

Eusko Jaurlaritzako Osakidetzako Sailburua den Jon Darponek, Maria Agirre, Ikerkuntza eta Berrikuntzako zuzendaria Euskal erakundeen ordezkari gisara lagun zuela (Bizkaiko Foru Aldundia, Donostia-San Sebastiáneko Udala, eta bazkide pribatu, akademiko eta teknologikoak), Bruselan jaso zuen Reference Sites 2013 saria, Europa Batzordeak Euskadiri emana azken urteotan zahartze aktiboaren eta osasungarriaren alde egin duen lantze integralarengatik berrikuntzan oinarrituta.

Iturria: **El Mundo** [2013ko uztailak 1] Argazkia: Irekia



46 MW hornitzea kontratatu du Gamesak ITC taldearekin Indian

Gamesak indartu egin du bere presentzia Indian kontratu berri baten sinaketarekin 46 megawatio (MW) hornitzeko ITC Paperboards and Speciality Papers Division sozietateari, ITC, indiar konglomeratu industrialaren mendekoa denari. Kontratuak kontuan hartzen du 23 aerogeneradore hornitu eta instalatzea Tagguparthi parkean (Andhra Pradeshko estatua), bai eta haien operazio eta mantentzerako ere. Haien abiaraztea 2014ko lehen hiruhilekorako dago aurreikusita eta kontratua gehitu egingo zaie CLP India eta Grenekorekin lortutako azken akordioei.

Iturria: **El Economista** [2013ko uztailak 2]
Argazkia: Revista Eólica y del Vehículo Eléctrico

Euskadik Automazioko Ingeniaritzan lehen diploma eskaintzen du

Euskal autonomia erkidegoa aitzindari izango da espezializazio-diploma bat eskaintzen en Automazioko Ingeniaritzan. Graduondoko hori era partekatuak emango dute Deustuko Unibertsitatearen eta Amorebietan egoitza duen Automoziorako Adimen Zentroaren (AIC-Automotive Intelligence Center) artean, datorren ikasturteetik hasita. Graduondokoa, sei hilabeteko iraupenarekin Industria Ingeniaritzako tituludunei zuzendua dago eta sektorean esperientzia duten pertsoneri automoziozko ezagutzak lortu edo hedatu nahi izanez gero.

Iturria: **El Correo** [2013ko irailak 6] Argazkia: AIC



Eroskiren supermerkatu batek energiaz bere burua hornituko du biomasatik abiatuta

Eroskik, Cener teknologia-zentro espezializatuarekin elkarlanean, Apina firmarekin (zurgapen-sistemekin aritzen da), Rank-ekin (kogenerazio-zikloetakoa) eta Girasolar-ekin (biomasako galdarekin lan egiten du), abian jarri du proiektu hau 2.000 metro koadroko supermerkatu batek behar duen energia hornitzearen bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa erakusteko helburuarekin abian jarri du proiektu hau energia berriztagarrien iturriekin, ezein sare elektrikorako jo gabe, biomasa energia-iturri bezala baliatzeari esker. Sistema hau Gasteizko lokal batean ezarriko dela aipatzen dute.

Iturria: **Gara** [2013ko uztailak 18]
Argazkia: Tulankide.com



Zazpi Euskal kooperatiba ageri dira Ekonomia Sozialeko rankingaren lehen hamabosten artean

Espainiar Ekonomia Sozialeko enpresak lider dira lau industria-sektoretan mundu-mailan, hiru Europan eta hamarren bat nazio-merkatuan, Ekonomia Sozialeko Espainiar Enpresa Konfederazioak landutako "Ekonomia Sozial" rankingaren arabera. Ranking horrek helburu du enpresa-eredu hori ikusgai bihurtzea eta informazioa eskaintzea sektore ekonomiko guztietan presente dagoen enpresa-ehun horren tamainaz, sektoreaz, enpleguaz. Ranking hori urtero eguneratzen da eta 827 enpresen enplegua eta fakturazioari buruzko informazioa eskaintzen du. Mundu-mailan lider diren enpresen artean honako hauek daude: Copreci, Orkli, Orona edo Danobat Group.

Iturria: **Tulankide** [2013ko abuztuak 29]

Ikusmen handiagoko zientzialariak

"Biobankuak", laginak biltegitatu eta hornitzen dituzten erakundeak (adibidez, ehun tumoralak), gaur egun ez dute ikuste-faktorerik, eta horregatik ezaugarri jakin batzuek dituen lagin bat bilatzerakoan, lana zaildu egiten da. Gabezia horretaz jabeturik, Europa Batasunak abian jarri zuen "Biopool" proiektua irudien banku handi bat sortzeko munduko biobanku desberdinetako lagin biologiko digitalizatuak bere baitan izango dituen. Proiektuan, zeinetan ari baitira hainbat herrialde, partaide da BIOEF Euskal biobankua, holandar bat eta Tecnalía. Azken hori eta ikusmen artifizialeko haren ekipoa dira irudien bitartez laginen berrezagutze berritzailea garatzeaz arduratzen direnak.

Iturria: **El Correo** [2013ko abuztuak 22]




Euskal teknologia munduko eguzki-teleskopio handienarentzat

Idom, Hilfa y Gometegui Basaurin ari dira amaitzen munduko eguzki-teleskopio handienaren kupula, EE.BBetako Behatoki Nazionala lider duen proiektua.

Aparatua, dagoeneko ATST (Advanced Technology Solar Telescope), bezala definitu dena lur honetan XVI. mendeaz geroztik eguzki-teleskopioaren gaitasunen munduan egindako aurreratze handientzat jotzen da. Haren diseinu esklusiboa optimizaturik dago eguzki-eremu magnetikoen neurketa zehatzak egiteko, batez ere, orain arte ikusezinak izan diren zirkunstantzietan. Teleskopioak egingo duen gaitasunaren ekarpen berri horrek eguzkiaren aldakortasuna ulertu eta aurreratu lagunduko du.

Iturria: **Deia** [2013ko irailak 20]
Argazkia: National Solar Observatory



Euskal Jaurlaritzak Etorgai deialdiaren bitartez, pazienteen etxerako monitorizazio-sistema aurreratu bat garatze ahalbidetu du

Vicomtech-IK4k, Clínica de la Asunciónek eta Bilbomática enpresak "Hygehos Home" pazienteen etxerako monitorizazio-sistema landu dute, teknologia berriei esker, eta aukera ematen du medikua pazientearekin harremanetan jartzeko, haren bizi-konstanteak zaindu eta sendagaia hartzen duen ala ez jakiteko. Sistema dispositibo mugikorrez baliatzen da (telefono adimendunak eta tabletak) zerbitzu-multzo bat eskaintzeko paziente bakoitzaren ezaugarrietara egokituriko zerbitzuen multzo bat eskaintzeko.

Iturria: **De Noticias** [2013ko irailak 23]

EBk saria eman dio Atxukarro Ikerkuntza Zentroari langileriaren bere kudeaketarengatik

Europa Batzordeak nabarmendu egin du Atxukarro Ikerkuntza Zentroa, neurozientziara bideratua, "HR excellence in research" galardoarekin, zeinek aitortzen baitu langileria ikertzailearen kudeaketa. Zentro hau Euskadiko lehen ikerkuntza-erakundea da aipaturiko saria lortzen eta Espainiako laugarrena.

Atxukarro Zentroa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bultzatu zuen eta honako patrono hauek ditu: Zientziarako Euskal Fundazioa-Ikerbasque, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) eta Berrikuntza eta Osasunaren Ikerkuntzarako Euskal Fundazioa (Bioef).

Iturria: **El Confidencial** [2013ko irailak 24]
Argazkia: Achucarro Basque Center for Neuroscience



Euskalduna Jauregiak jasangarritasuneko LEED ziurtagiria lortu du

Euskalduna Jauregiak izan badiren Eraikinen Operazio eta Mantentze LEED ziurtagiria lortu du (LEED-EBOM), zeinek aitortzen baitu haren nolakotasun eredugarriak eraikuntza jasangarri, baliabideen kudeaketa eta ingurumenarekiko mantentze arduratsuari dagokienez.

Nazioarteko ziurtapen hau, Washingtonen egoitza duen US Green Building Council-ek ematen duena, gaur egun munduan diren kreditazio garrantzitsuenetako bat da. Euskalduna da hori lortu duen Europako lehen kongresu-jauregia.

Iturria: **Eitb.com** [2013ko urriak 8]
Argazkia: Palacio Euskalduna



Ikasleek jaso dituzte Bilbon gazte solidarioentzako etxebizitzak

Bilboko Udalak, UPV/EHUak eta Deustuko Unibertsitateak 14 udal etxebizitza eskaintzen dizkiete alokairu partekatuko erregimenean, graduondo ikastaroetan izena eman duten eta 35 urtez beherako 40 gazteri, hileko 50 euroko prezio sinbolikoan, "Bilboko Udal Etxebizitzak Gazte Solidarioentzat" programaren bitartez.

Programaz gozatzeko ordain gisara eskatzen da egoitzagunean esku-hartze sozio-komunitarioa egitea, "Imajinatu Otxarkoaga" eta Imajinatu zeure auzunea" ekimenetan, izan ere auzunetan elkarbizitza hobetzera bideraturik daude.

Iturria: **Deia** [2013ko urriak 9]
Argazkia: Deustuko Unibertsitatea

Holandak beretzat hartu du Ibermáticak sortutako neurtu, ebaluatu eta bultzatzeko eredua

Ibermáticak, i3B berrikuntza-institutuaren bitartez Holandako European Tourism Futures Institute-n (ETF) CCI (Kodea Kapitala Berrikuntza) ezarri du, ahalmen berritzailearen diagnostia egiteko bere metodologia, kasu honetan herrialdeko turismo-sektorean, eta hortik abiatuta neurri pertsonalizatuak ezarri estadio berritzaileagoetara bilakaera egiteko. Helburu honako hau da: turismoa bultzatzea sektoreko eteen ahalmen berritzaile eta holandar goi-sukaldaritzako jatetxeak bultzatuz.

Iturria: **Basque Research** [2013ko azaroak 7]
Argazkia: Ibermática



Bost euskal enpresa elkartu dira plataforma eoliko flotakorrek garatzeko

Muruetako ontziolak, Tamoin, Velatia eta Vicinay Marine Innovation izan ziren Tecnalia Ikerkuntza Aplikatuko Zentroarekin batera, Nautilus Floating Solutions, S.L. partzuergo industrial eta teknologikoa eratu zutenak mundu-mailako erreferente bihurtzeko helburuarekin eolika off-shore mekaturako plataforma flotakorrek garatzen. Nautilusek aukera emango du epe ertain eta luzera plataforma flotakor erdimurgilduak garatzeko, zeinak erabili ahal izango diren gaur eguneko irtenbide zimentatuak itsas zolaren sakonerak onartzen ez dituen kokaguneetan. Garapen teknologiko eta industrial berri honek proba bat izango du entsegu-kanaleko eskalan 2014an, unitate komertzialak ekoizten 2016tik aurrera hasteko.

Iturria: **El Correo** [2013ko urriak 15]



Colegio Vizcayak haurrentzako bere hiriaren hirugarren hedapena inauguratu du

Colegio Vizcayak gaur goizean inauguratu du haurrentzako bere hiriaren hirugarren hedapena, 0-3 urte bitarteko haurrei bideratua.

Hiru higiezinak eraikin marsupial ideiepean pentsaturik daude: haurrak, babesturik daude, eta aldi berean behatzen aritzen dira. Higiezinetako lehena Eduardo Arroyok proiektatuak, Arkitekto Euskal-Nafarren Elkargoaren lehen saria irabazi zuen. Gainera, Fomentok arkitektura espainiar garaikidearen garapena markatu duten 24 obren artean sartu du.

Instalazio berrien inaugurazioa bat dator haur-hezkuntzako ikasgeletan abian jartzearekin, era orokortuan, Montessori metodologia ezartzearekin.

Iturria: **El País** [2013ko urriak 15]
Argazkia: Colegio Vizcaya

Garrigues, Uría eta Cuatrecasas, berrikuntzaren elitean

Hiru bufete espainiar hauek Europako 50 bulego berritzaileen rankingean kokatzen dira, zeinen liderra baita Linklaters, Financial Timesen "Innovative Lawyers 2013" ekimenaren arabera. Hiru firma nacional handiak lehen hogeita hamar postuetan kokaturik daude. Garrigues, 2011 eta 2012an Europa kontinentaleko bufete berritzaileenarentzako saria lortu zuena, aurten ere top ten globalean kokatu da, hamargarren lekuan. Bestalde, Uría Menéndezek 22. postuan kokatzea lortu du eta Cuatrecasas sailkapen orokorreko 28. lekuan kokatu da.

Iturria: **Expansión** [2013ko urriak 10]
Argazkia: Financial Times



Metro Bilbao, bezeroek hobekien balioetsitako enpresa

Metro Bilbao da bere bezeroentzat azken hiruhilekoan irudi eta balioespen hobereana izan duen Espainiako enpresa Zerbitzu Kalitatearen Azterketako Stiga aholkularitzaren, hiru hilabetez behin espainiar kontsumitzailearen gogobetetasun-indize bat argitaratzen duen erakundearen arabera. Hiripeko bizkaitar hori dago lehen postuan rankingean eta top 5ean honako hauek daude: Paradores, Yoigo, Santalucía edo Reale. Bere azterketa burutzeko Stigako langileriak urtean zehar 20.000 iritzi jasotzen dituzte.


Iturria: **Equipos&Talento** [2013ko azaroak 19]



CDTI eta Repsolek milioi bat inbertitu dute Graphenea donostiar firmaren kapitalean

Repsol eta Ekonomia eta Lehiakortasuneko Ministerioaren mende dagoen Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroak (BTIZ) akordio bat sinatu dute Graphenean enpresarekin eta beraren bitartez bi erakundeek milioi bat euro inbertitzen dituzte batera teknologia-enpresa horren kapitalean. Inbertsio-kidetzak horrek, Innvierte programaren esparruan eta energia berrien barrutian eginak indartu egingo du haren gaitasun teknologikoa, bultzatu egingo du haen enpresa-hazkuntza eta, gainera, nazioarteko haren lidergoari eusteko aukera emango dio grafenoa ekoizteko sektore hazkorren barruan.

Iturria: **Diario Vasco** [2013ko abenduak 6]



“PanSano-Gure Ogi Onena” marka jaio da

Joan den asteazkenean, Donostiako Basque Culinary Center-en, ogia izan zen eguneko protagonista nagusia. Arrazoia Euskal ogia adin-nagusitasunerira iritsi izana: PanSano kalitate-markarekin asoziatuak hamabost euskal okinen zapore autoktonoko proposamen berria; haietako lau gipuzkoarrak dira.

Aurkezpenerako ogi berriarekin erabat bat datorren leku bat aukeratu zen; gastronomiaren saildutegetako bat. Izan ere euskal ogia OKm-ko ogi bezala aurkezten baita, tradizioak duen hobereana eta gure lurraldeko ogiaren zaporea elkartu nahi dituen.

Iturria: **Noticias de Gipuzkoa** [2013ko abenduak 8] Argazkia: Bizkarra




Hiru euskal firma partaide dira Gaia europar satelite berriaren proiektuan

Euskal Herriko Aeronautika eta Espazioko Klusterrean (Hegan) txertatutako hiru erakunde partaide dira Gaia zientzia-misioan: Europa Espazio Agentziak (ESA) bost urtez 1.000 milioi izarren datuak jasoko ditu Esne Bidearen hiru dimentsioko mapa bat eraikitzeko.

Satelite hori, Europaren historiako teleskopio konplexuentzat kontsideratzen dena, gaur aireratu da Kuruko (Guaiana frantsesa) Europa Espazioagunetik.

Proiektuan partaide diren euskal klusterrean integratutako enpresak - bertan 16 herrialdetako 40 enpresa ari dira elkarlanean- Sener ingeniariak, Nuter firma eta Teknologia Aeronautikoen Zentroa CTA dira.

Iturria: **Diario Vasco** [2013ko abenduak 19] Argazkia: Hegan



berrikuntza - apunteak

Berrikuntza -erak, aldatzen ari dira?

Berrikuntza egiteko erak aldatzen ari dira, olatuaren galdorrean egon eta gero, abusuaren ondorioa den agortze halako bat jasan (*dena berrikuntza da*), kontzeptuak birkokatu beharra du, benetakotasunetik, palanka estrategiko bat bezala, eragin errealairekin. Berrikuntzari orain:

- Emaizak bakarrik eskatzen zaizkio, eta presarekin gainera.
- Zailena ez da ideiak izatea, berrikuntza-proiektuak burutzea da gero eta zorrotzagoa den egunerokotasun batean. Hori berrikuntza egiten duten erakundeak eta ideien bilduma egiten duten erakundeak bereizten dituztenak bereizten dituen balorea.
- Errotikoa edo gehikuntzakoa? Arriskua sustatzen duen lidertza berritzaile bat gabe lehengo gauza bera ateratzen da berriz ere. Hobekuntza ez da berrikuntza.
- Enpresa handi ugari dagoeneko hasi dira ikusten argi eta garbi lehia aritzeko arriskutsuenak bizkarpoltsarik gabe doazenak direla (egitura astunik gabeak, galtzeko ezer ez dutenak, irabazteko guztia dutenak, marka


arazorik gabeak bezero errealekin probak egiteko). Korporazio handiek badakite edo "garaje"ra itzultzen direla edo bizkar-poltsarik gabeko edozein ausartek negozioa irauli diezaiketela. Horrekin enpresa handi askoren interesa ekintzaile, start-up eta este berritzaileekiko erreala izaten hasi da.

- Berrikuntzak ingurune berritzaileak eskatzen ditu, non jendeak irekian pentsa dezakeen, suharto daitekeen, esploratu eta arduratsu proba dezakeen.
- Porrotetik ikasi. Inork ez du gogoko bere proiektuetan huts egitea, baina gauza gaizki ateratzen bada, ikastea da lehen erantzukizuna, kostuak nork bere gain hartzearekin batera.
- Zentzudun berrikuntzak hobeki funtzionatzen du. Horrek jarrera erabakiduna eskatzen du

erakundeen liderengandik hasita, izan ere berrikuntza korporazioen lehen erantzukizunetakoz hartu beharko litzateke.

- Zentzu sozialarekin. Berrikuntzak arazo sozialak konpontzeko asmoa badu haren emaitzak gizarte osoaren mesedetan joango dira, izan ere bera da hura ordaintzen duena.

Premisa hauen arabera, 6 berritzaile gonbidatu ditugu, barruti desberdinetakoak, beren gogoeta eta ikuspuntuen ekarpena guri egitera.





Maker hiru indarrak.

Jon Bengoetxea, Tumaker-en CEO

Berritzea munduari erronka jotzea da baina iraungitze-datarekin. Dena oso bizkor etorri dator eta joan doa. Zeure burua etengabe berrasmatzea da laster zeure gain hartu beharko duzun arau deserosoa. Maker garenok oso ondo dakigu. Maker? Bai, zaletasun arraroak dituzten friki horiek, baina asmatzaileizatetik ekintzaile izatera pasatzeko trebetasun berezia dutenak produktuak, teknologia eta merkantziak ekoiziz beren gela, garaje, kafetegi (wifirekin noski) hackspace, tailer edo elkarteetatik.

Maker mugimenduak hirugarren industria-iraultza eragingo omen du. Biztanleria zabal baten eskura dagoen manufaktura eta ekoizpenaz ari gara. Sarean fabrikatzeaz fabrika bat izan beharrik gabe, zeure musika-ekoizpenak sor ditzakezun bezala grabaketa-estudio bat izan gabe. **Imajinatzen al dituzu datozen urteotan biziko ditugun berrikuntzak eta korporazio handietatik etorriko ez direnak, baizik eta pertsona normalengandik gauza harrigarriak egiteko borondatearekin?**

Hiru indarrek laguntzen dute Maker mugimendua: Lehena, diseinurako erreminta digitalak eta CAD motako fabrikazioa eta 3D inprimagailuak menderatzea.

Bigarrena, elkarlaneko berrikuntzatik abantaila hartzea. Interneta da bitarteko naturala eta hortxe daukagu behar dugun guztia, lankideak, teknologia, erremintak, finantzazioa, bezeroak, fabrikak, marketinga.

Hirugarrena, honela dioen mantra bat da: Zure ingurunean dauden gauza gehienak zu baino adimendunagoak ez diren pertsonak sortuak dira.

Orain galde egin zeure buruari. Zergatik ez? Eta bidaira aterako zara berrikuntzaren egiazko ninja bat izateko.

Berrikuntzari buruzko gogoetak. Asier Rufino, Tecnalia Venturesen zuzendari nagusia

“Ekosistema” edo “estrategia” bezalako terminoen inguruan sortutako hizkuntza-gehiegikerien antzera “berrikuntza” kontzeptua gehiegi erabiltzeak esanahi erreala kendu dio terminoari. Baldin eta berrikuntzaz prozesua ulertzen badugu, zeinen bitartez asetzen diren merkatuaren beharrak; emaitza-kontuko arazo ukigarriak B2Bren kasuan edo dauden beharrak asetzen diren B2Cren kasuan errentagarriak izango diren teknologia-oinarriko (edo ez) irtenbideen bitartez; desberdingarriak eta jasangarritasun-elementuak dituztenak, ongi etorria bedi berrikuntza.

Berrikuntza gehikuntzakoa edo disruptiboa izan; izaera zuzenki edo zeharka sozialekoa (negozio-aukera berri oro azalartzea, zeinek sortuko baitu aberastasuna eta enplegua edozein sektore “etikotan” definizioz soziala izango da, prozesukoa edo produktukoa edo teknologia-oinarrikoa izan edo ez, fokuraturik dagoen neurrian garrantzitsua izateko aukerak izango ditu eta hori da axola izan beharko litzaigukeena.

Nire esperientzian bada izendatzaile komun bat prozesu berritzaile ororena eta hori arriskuak hartzea da, beraz, berrikuntza sustatzeko **hazkuntza-salda bat sortzea beharrezkoa da arriskuak hartzearekin erosoagoa sentiaraziko gaituena** eta porrota izan daitekeen txaponaren beste aldearekin.



Berrikuntza egiteko era berriak berrikuntza irekiko sareetan oinarrituak.

Xabier Sagartzazu, Ikerlan-IK4ko
Fabrikazio Aurreratuko zuzendaria

Gure esperientzia eta ezagutzatik, nola teknologia-ikerkuntzatik hala berrikuntza irekiko sareen funtzionamenduari buruzko gure enpresen praktikatik garaturik, egiten ditugun gogoeta nagusiak honako hauek dira:

- Sarea sortzeaz. Eraitza hoberenak ematen dituzten teknologia-berrikuntzako elkarlan-harremanak epe ertain eta luzeko ostertzak dituen erakunde-talde mugatu batekin estrategiak finkatzen dituztenak dira. Garatu beharrezko proiektu motaren arabera ad-hoc ekipoak eratzen dira aipatutako erakunde bakarrez edo gehiagoz eratuak, behar izaneza gero bakarrik, beste kanpo-eragile batzuk gehituz. Proiektu horiek negozioa modelatu eta ideatzetik abiatu daitezke, beharrezko teknologia sortu eta atzematera pasatzeko, produktua edo zerbitzua garatzeko, berrikuntza teknologikoa fabrikazio eta eragiketa-prozesuetan kontsideratuz.
- Ezagutzako aktiboen sorkidetzaz. Botere-jarrera asimetrikoak daudenean enpresen artean, funtsezkoa da enpresa txiki eta ertainek jakitea nola abestu beren ezagutza-aktiboak eta justifikatu beren ustipen-eskubideak eta horrela akordio onetara iristea.
- Antolatze-eraz eta estiloaz. Itunak sendotuz eta helduz doazen neurrian, kontrolean eta plangintzan oinarritutako harremanak pixkanaka pasabide ematen diete laneko esparru malguagoi, zeinetan konfiantzazko **harremanak ezartzeak bakarrik ahalbidetzen baitute beren emaitzetan efektibitatea eta efizientzia mantentzea.**



Uzta biltzeko soroa landu. Ikerkuntzako inbertsioa berrikuntzaren etorkizunerako.

Arkaitz Carracedo, CIC bioGUNEko
ikertzailea

Berrikuntza etorkizuna da eta betekizun oinarritzko bat gure gizarteak behar duen eredu ekonomikoaren aldaketan. Alderdi horretan dagoen oinarritzko galderetako bat hau da: Nola lortzen da izatea motor ekonomiko bat berrikuntzan oinarritua? Eta erantzuna oihuka errepikatzen da elkargo zientifikoaren artean: soroa landuz.

Proiektu berritzaileak emango dituzten haziak landuz, era ezinbestekoan oinarriko ikerkuntzaren baitan dagoen prozesu bat. Ikerkuntza, garapena eta berrikuntza (I+G+b) anaiarte bat bezala jaio zen, gertaldi-kate bat bezala, zeinetatik ideia bat, aurkikuntza bat edo behaketa bat itzuliz eta moldatuz baitoa, harik eta ezaugarri batzuk lortu arte, gizarteari irisgarri zitzaizkionak.

Eredu hau da ahabidetzen dituen, ezagutzaren bitartez, adibidez, materialen propietate fisikoak eta kimikoak, edo organismoen oinarri biologikoen bitartez, berrikuntza-prozesua jasan eta sustatzea ahalbidetzen duen masa kritikoa sor dezagun. **Berrikuntza ezinbestez da ehun ikertzaile elikatu eta osasungarri baten itzulpena eta ondorioa.** Ikerkuntza zabartzen bada, gizarte baten berrikuntza-ahalmena agortu joaten da erregariatu eta ongarritzen ez den soro baten ekoizpena agortzen den bezala.

Horregatik guztiarengatik, ez dugu ahaztu behar oinarritzko ikerkuntza soro emankor bat mantentzea seguratuko duen ongarrria, gure gizarteari ezagutzaren itzulpena eta ezarpen batekin, zeinek ahalbidetuko baitu lortu behar dugun eredu produktiboaren birmoldatze hori.



Berrikuntza irekia, advanced manufacturing-en, merkatutik gertuko irtenbideak sortzeko formula bat.

José Esmorís, CIE Automotive-ren zuzendari teknikoa

2013. urteak Europaren aldeko apustu argi eta garbia egitearen ezaugarria izan badu CIE Automotiven, gure ideiak partekatu eta garatzeko lehentasunezko ingurunea den heinean, 2014.en urtea, besteak beste, Manufacturing arloan berrikuntzaren aldeko apustu argi eta garbia egitearen ezaugarria izango du.

Baina gure berrikuntza-kontzeptua ez da mugatzen H2020ko deialdietara aurkezteko moduko nazioarteko lankidetzaz-partuergoak sortu eta garatzen aritzera, eta zeinetan CIE Automotive partaide izan daitekeen, nola lider bezala hala, gure plan estrategikoan, produktu eta prozesu definituekin elkartutako gai berezien garapeneko arduradun bezala, izan ere horiek izango dira lehentasunezkoak datozen urteetarako; **aitzitik, sektore anitzeko eta diziplina arteko lan-ekipoak sortzea erraztuko duen berrikuntza ireki batera ere iritsi nahi dugu, industria-prozesu eta ezarpen-sektore desberdinetarako komunak diren erronkak eta lehentasunak identifikatzeko gaitasunarekin.** Arrakasta izatera iristeko beharrezkoa da partaidetza aktiboa, nola industria-ehunean, hala ZTEseko eragile desberdinenean, eta partaidetza horrek enpresa berrien sorrera areagotzea izan behar du helburu, edo dagoeneko badirenak garatzea, egitasmo ekintzaileen inguruan, zeinek garatu ahal izango dituzten merkatutik gertuko irtenbideak, eta negozio-ikuspena izango dutenak, nola tokian hala nazioartean.

Lankidetzaz-jarduneko ingurune honetan, Innobasquek, inolako zalantzarik gabe, eginkizun oso garrantzitsua du, bai EAEko ehun berritzailea osatuz ekipoak prestatzerakoan, eta bai ekintzailetzako proiektuentzat edo lankidetzaz-ingurune horretatik sor daitekeen partenergo publiko eta pribatuak garatzeko finantzazio hautabidezkoa bilatuz.



Komunitatea ikaskuntza-ingurune bezala.

M^a Carmen Urbieto, Leioako alkatea

Lekuko izaten ari garen globalizazio-prozesuak, bai eta eragile ere, aldaketa batzuetara eramaten gaituzte zeinen gain esku hartzeko betebeharra baitugu, jitoan ez ibiltzeko. Beharrezko zaigu oreka bat bilatzea pertsona, gizartea, jasangarritasuna eta beharren artean.

Horri loturik, teknologien bilakaera bizkorra gure gizarteko harreman-sormen- eta ekoizpen-ereduak gainazpikatzen eta eraldatzen ari da. Horregatik guztiarengatik, ezagutzaren gizartea deitzen dugun horretan lan egin beharra dugu, hiritarren garapenarekin konprometituz baitago. Beharrezko baldintzak eskura izan behar ditugu pertsona bakoitzaren prozesu eta ikaskuntza-mekanismoak errespetatu eta lagundu daitezten.

Azken hamarkadotan lan egin den hirien diseinuak honako ikuspegi honetatik ikusitako beharrei erantzun die: gaitasun osoko eta nagusiki ibilgailuen bidez mugikortasuna izango zuela pentsatzen zen pertsona helduarenetik.

Diseinu hori birdefinitzeko lan egin behar dugu datozen urteetan behar berrietan begiak jarrita, gure hiritarren aniztasuna kontuan izanda, gure toki-ingurunea birpentsatuz eta berrantolatuz.



Hiritarren partaidetza eztabaidapean

"Euskadiko demokrasiaren eta hiritarren partaidetzaren liburu zuria" jardunaldiaren esparruan, joan den abenduaren 18an egin zena Eusko Jaurlaritzak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) eta Innobasquek antolatutako, "Partaidetzaren korapiloak" argitalpena aurkeztu zen; gogoetarako gidaliburu horrek mahai gainean jartzen ditu hiritarren partaidetzak eskuarki aurkitzen dituen korapilo, behaztopa edo arazoak.

Gogoeta horren helburua, Innobasquek sustatu eta Parte Hartuz-en lankidetzarekin, 26 kasu errealean esperientziaren gainean eraikita arduradun politiko eta teknikoei laguntzea da arazo horiei aurrea hartu eta ihes egiten arazo horiek partaidetza-prozesua lotu eta trabatu baino lehen; behaztopei ihes egiteko ibilbide-orri bat da.

"Partaidetzaren korapiloak", gainera, abiapuntu izan zen "Euskadiko demokrasiaren eta hiritarren partaidetzaren liburu zuria" liburuaren eraikitze-prozesu partekatua hasteko, zeinek ezarriko baitu hiritargoaren eskubidea, eta Administrazioaren betebeharra gardentasunerako eta pertsonen parte hartze aktiboa bultzatuko du politika publikoen diseinuan eta ebaluazioan.

Argitalpena Eusko Jaurlaritzako Lehendaritzako eta Administrazio Publiko eta Justiziako sailak sustaturik dago eta badu batzorde aholku-emaila bat prozesua zaintzeko eta ikuspegi aniztasuna bermatzeko. Abenduaren 18ko lan-saioarekin hasi zen prozesua eta bertan 130 pertsona partaidek hiru galderari erantzun zieten: Zer da eta zer ez da hiritarren partaidetza? Zer esan nahi du

horrek Administrazioarentzat eta hiritarrentzat? Eta zer izan behar du Liburu Zuriak bere baitan praktikoa izateko?

Hitz batean, saioak hiritarren partaidetza diseinuari eta politika publikoen inplementazioari nola erantsi argitzeko balio izan zuen, guztien artean harreman berri bat sortzeko Administrazioa eta hiritarren artean.



"Partaidetzaren korapiloak"

Ezkerretik eskuinera: Joaquim Brugué, Josu Erkoreka eta Luis Petrikorena.
Argazkia: Irekia



ERA-NET, aukera bat I+G+b-aren nazioartekotzea finantzatzeko

100 pertsona baino gehiago joan ziren joan den azaroaren 29an ERA-NET 2014 deialdien aurkezpena, zeinetan parte hartzen baitu Eusko Jaurlaritzak Innobasque, Elika eta EVeren elkarlanarekin.

Jardunaldian zehar informazioa eman zitzaion euskal enpresei, batez ere eteei, ERA-NET deialdietan parte hartzeko aukerez honako gaietan: bioteknologia, fabrikazio aurreratua, materialak, elikadura jasangarria, garraioa edo energia ozeanikoak, aldi berean gomendio batzuk egin zitzaizkielarik proposamenak prestatzeko honetarako: MANUNET II, ETB PRO, M-ERA.NET eta SUSFOOD.

Pertsona partaideek aukera izan zuten, halaber, I+G+b europarreko nazioartekotze-programetan arrakastarekin parte hartu duten euskal enpresen bi kasu ezagutzeko. Alde batetik, Innoprot aurkeztu zen, Euskal Herriko Unibertsitateko spin-off bat, "in Vitro" zelula-sistemen hornitzailea farmakoak aurkitu eta garatzeko entseguak egiteko, zeinek parte hartu baitzuen EuroTransBioren 5º deialdian



ERA-NET 2014 deialdien aurkezpena.

elkarlaneko proiektu batekin enpresa kataluniar eta holandar batekin. Eta bestetik, Datinet enpresaren kasua ezagutarazi zen, zeinek aholkularitza-zerbitzuak eta irtenbide informatikoak garatu eta ezartzen baititu, LEAD-ERA hiru proiektutan parte hartzen duelarik.

ERA-NET lanabes bat da, Europar Batzordearen VII Esparru Programaren

barruan, programak koordinatzeko eta europar herrialde eta erregioen artean I+G+b-ri laguntzeko, ikerketa artikulatu eta indartuaren bikaintasun-mailak gehitzeko, gobernu partehartzaileen nazioartekotzearen eta elkarlaneko finantzazio-programen bitartez. Lanabes estrategiko bat da I+G+b-aren nazioartekotze-helburua lortzeko, batez ere eteentzat.

Euskadi aitzindari ikaskuntzako komunitate-inguruneetako laborategi bat sortzen

Proiektu hau, euskal eragile publiko eta pribatuaren partzuergo batek sustatua, Herrigune Leioa esperientziatik sortu da.

Herrigune Leioa tokiko hezkuntza-programa bat da, 2001ean abian jarri zenetik, esperientzia komunak eraikitzen lan egiten du, zeinetan hiritarrak haien protagonista izango diren, ikaskuntza- eta hazkuntza-gune berriak eraikiz, berrikuntza eginez ingurune sozialean eta Leioako pertsona bakoitzaren gaitasunak garatuz eta partekatuz.

Ekainean ekimen hau aurkeztu ondoren esperientzia eskalagarri bezala, "Berrikuntza soziala, balorea pertsonen bitartez eta pertsonentzat sortuz", Innobasque, Solasgune, Leioako Udala, Irakasle Eskola (UPV/EHU) eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak lantalde bat sortu zuten eta gerora hari gehitu zitzaizkion Bizkaiko Ekintza Soziala eta Kultura Sailak. Laneko ekipo



Herrigune Leioa. Argazkia: Solasgune

horren helburua laborategi bat diseinatu eta eraikitzea zen, zeinek lagundu, ikertu eta garatzeko baitzituen komunitatearentzako proposamenak ikaskuntza-ingurune bat bezala.

Hala jaio zen Ikaskuntzako Komunitate Inguruneetako Laborategia, estatu-mailako lehena, zeinek ekin baitzion bideari laneko lehen lerro batzuk marraztuz esperientziak lekutu, lankidetzeta- eta ikerketa-guneak sortu, prestakuntza eta ezagutza eraikitzeko uneak eskaini, proiektuak hedatzeko, eta abarrerako.

Gainera, bere asmoen artean hartzen du, hurrengo hilabeteetan, Francesco Tonucciren proposamena ("Haurren hiria" proiektuaren sustatzailea) Haurren Hirien Sarea sortu eta koordinatu behar dela, euskal udalen sare bat gune sozial komunak eraldatzeko ikaskuntza berritzaileko lekuak izan daitezzen, inklusiboak eta malguak, pertsonen autonomia sustatuko dutenak, halako moldez, non haiek garapenerako duten beren ahalmen guztia heda dezaten.

Basque Social Innovation, berrikuntza sozialeko euskal nodoa jaio da

Basque Social Innovation, zeinen helburua berrikuntza sozialeko esperientzia-plataforma bat bezala Euskadi kokatzea baita, European erreferentziakoa izan dadin, era estrategiko eta koordinatuan eragile eta ekimen guztiak balorean jarriz, joan den uztailaren 12an eratu zen ofizialki.

Gaur egun 22 euskal erakunde publiko eta pribatuk osatua, Basque Social Innovationek bultzatu egiten du berrikuntza sozialeko agenda partekatu bat garatzea Euskadin landu beharrezko lerro estrategikoak zehaztuko dituen aurre egiteko, modu eraginkorren, euskal gizarteak aurrean dituen erronkei. Hori guztia baterako ekintza berria abian jartzearen bitartez, baina bai eta dagoeneko garatuak diren ekimenak bultzatuz ere, eta horrek ahalbidetuko du Euskadiko berrikuntza soziala lehiakortasuneko eta kohesio sozialeko barne-faktore bat bihurtzea, bai eta gure erregioa nazioarteko erreferente giza barruti horretan kokatzea.



Gaur egun Basque Social Innovation-en partaide diren eragileak honako hauek dira: Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Arabako Foru Aldundia, Eudel, UGT Euskadi, CC OO Euskadi, Confebask, EHLABE, Agirre Lehendakaria Center

for Social and Political Studies, Tecnalia, Sinnergia Social Innovation, UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, MIK, Kutxabank, Reas Euskadi, Novia Salcedo Fundazioa, Deusto Innovación Social, Denokinn, Business Innovation Brokers eta Innobasque.

Euskadi Euskal I+G+b European Koaderno Estrategikoa prestatzen ari da

Estrategia horren diseinua Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragile guztien Europako jarduerari buruz alde aurretiko gogoeta-prozedura batean oinarrituta dago, bai eta euskal partaidetzaren helburuak finkatzean ere epe ertain eta luzera H2020an zehar. Hori guztia, Europak programa berri horretan markatutako erronkekiko koherentzian.

Koaderno Estrategiko berria H2020 ezagutu nahi duten pertsona guztientzat gidaliburu bezala balio izateko helburuarekin sortu da, partaidetzako neurriak eta laguntza-zerbitzuak aurkeztuz aldi berean.

Ikerkuntza eta berrikuntzako europar proiektuetan Euskadiren partaidetza hobetzen jarraitzeko helburuarekin eta, zehazki, Horizon2020 Esparru Programa berrian, Eusko



Jaurlaritzak, Innobasque eta SPRIrekiko elkarlanean, "Euskal I+G+b European 2014-2020 Koaderno Estrategikoa lantzen ari da,

zeinek markatuko baitu aurrera egiten jarraitzeko estrategia bide horretatik datozen urteetan.



Ezkeretik eskuinera: 1. lerroa: Helena Soletto, Margarita Uría, Manuel Valín, M^o José Anitua eta Gotzon Bernaola.

2. lerroa: Txema Villate, Nathalie Ganier-Raymond, Luis Alba, Tomás Arrieta eta Jon Aztiria.

Argazkia: Irekia

Lankidetzazuzenbidea, justizia-kontzeptu berri bat pertsonarengan eta haren baloreetan oinarritua

Euskadiko Lankidetzazuzenbidearen Elkartea, Eusko Jaurlaritzako Administrazio Publiko eta Justiziako Sailarekiko, Arabako Foru Aldundiarekiko eta Innobasquerekiko elkarlanean, joan den irailaren 20an Vitoria-Gasteizen "Lankidetzazuzenbidea: XXI menderako gatazkak ebazteko modu berri bat" jardunaldia, Euskadin lankidetzazuzenbidea era hautabidezko eta berritzaile bezala, defentsa juridikoa eta pertsonarengan eta haren baloreengan oinarritutako justizia ulertzeko era berri bat bezala txertatzeko helburuarekin, gainera bai eta kostuak eta denbora aurrezte garrantzitsu bat bezala ere. Topaketan bertan 150 pertsona izan ziren- gaian adituak diren zenbait pertsonak lankidetzazuzenbidearen gakoak ezagutarazi zituzten,

zeinen oinarria ekipo-negoiazioa baita abokatuen eta haien bezeroen artean eta beste profesional batzuen artean (ekonomialariak, graduatu sozialak, psikologoak, pedagogoak, bitartekariak, arbitroak, terapeutak, eta abar) epe luzerako akordio bat lortzeko, irtenbide sortzaileen bitartez, errespetu- edo gardentasun-, ekitate- eta konfidentzialtasun-baloreen aldetik.

Berrikuntza juridiko honek paradigma eta pentsamolde aldaketa bat dakar, bai zuzenbidearen profesionalentzat, bai eta hiritarrentzat ere, oro har. Aldeen interes errealek lortzea bilatzen du, pertsona eta arazoak bereiziz, aldeen arteko emozioak eta erreakzioak kudeatuz, izan ere partaide bihurtzen dira irtenbide hitzartu bat eta

egiazki gogobetegarria izango den bat bilatu eta hartzen, irabazi-irabazi premisaren pean.

Gainera, lankidetzazuzenbidearen abokatuak negoziatzeko bukatutzat ematera konprometitzen dira eta kasutik erretiratzera, lankidetzazuzenbideetik ez bada akordio bat lortzen, beste abokatu batzuk izan daitezkeen kasu hori auzitegiarekiko eramango dutenak.

Lehen jardunaldiaren arrakastaren ondoren, eta kontuan hartuz zer aukera irekitzen ari den Euskadin praktika hori ezartzeko elkargo aitzindari bihurtzeko, zuzenbideko edozein arlori ezargarri zaiona (batez ere merkataritzaren eta familiaren barrutian), abenduaren 11n beste jardunaldi bat antolatu zen Bilbon, Lankidetzazuzenbideko Elkarrearen, Bizkaiko Abokatuen Elkargo Argiaren, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren eta Innobasqueren eskutik.

5

gako

IKASGELAN BERRIKUNTZA GARATZEKO



Amaia Bolois, Félix Sáenz de Ugarte, Andoni Iñigo eta Nekane Granado, Urkide Ikastetxea

Berrikuntza ikasgelara eramatea lortzeko ideien (sormenaren) barrutian, proiektuen barrutian (ekintzailletza) eta marketingaren barrutian (hedapena) lan egitea beharrezkoa da. Beraz, oinarritzkoa da haietako bakoitzerako helburua zehaztea eta haren garapena urrats edo heziketa-ziklo bakoitzean orekatzea. Hori lortzeko gakoak honako hauek dira:

1

PLANIFIKATU: Agerian jar ezazu zure Zentroan Berrikuntzari eman nahi zaion balioa, identifika itzazu zeure ikasleen artean garatu nahi dituzun jarrera berritzaileak eta planteatu itzazu helburuak. Oso garrantzitsua da irakasle-talde osoaren koordinazioa eta inplikazioa.

2

ESPLORATU: Bila itzazu edo landu itzazu jarduerak ikasgai bakoitzetik lan egiteko, berrikuntza susta dezaten eta burututako plangintzarekin lerrokaturik egongo direnak. Funtsezkoa da ikasgelako programazioetan haiek sartzea urtero egiten direla segurtatzeko.

3

BANATU: Bila itzazu zeharkakotasunean lan egiteko guneak eta baliabideak, teknika sortzaile desberdinak (ideia-zaparrada, kapelen teknika...) eta ekintzaileak. Diseina itzazu alde aurretiko saio espezifikoak, zeinetan landuko baitira beharrezko baloreak teknika horiek probetxuzkoak izan daitezen (ideiekiko errespetua, altruismoa, desinhibizioa,...).

4

MOTIBATU: Erraztu ikasleen partaidetza irtenbide sortzaileak bilatzen Zentroaren beharretarako, jarrera berritzaileak ikaste ahalbidetu adin desberdinetako ikasleen elkarrekintzaren bitartez; ibili ikasgela iragazkorrerantz, haien barruan edo kanpoan esperientziak partekatzeko prest.

5

INPLIKATU: "Zentroko" jarduerak programa itzazu Heziketa Komunitate osoa hartuko dutenak (ikasleak, familiak eta irakasleak), erronka zehatzak planteatuko dituztenak, ikasgeletan garatzen den lan guztia bultzatuko dutenak eta "bitaminak" ekarriko dituztenak motibazioari eta berrikuntzan lanean jarraitzeko gogoari eusteko.

Euskadi Giza eskubideekiko erantzukizuna, Euskadiko energia-sektorearen lehiakortasunerako gako

“Erantzukizun soziala giza eskubideekiko Euskadiko energia-sektorearen hornitze-katean” 2013ko maiatzean Euskadiko Autonomia Erkidegoan energia-sektoreko giza eskubideen gaian gaitasunak eta prestutasun egokiko sistemak sendotzeko helburuarekin abiarazitako proiektu pilotuaren lehen fasea amaitu da.

Innobasquek bultzaturik, The Rights Factory Bilboko aholkularitzaren elkarlanarekin, proiektu horrek energia-sektoreko balio-katean erreferente diren bost euskal enpresaren partaidetza izan du: Artech, Gamesa, Ingeteam, Ondoan eta Ormazabal.

Sektoreko elkarriketaren bitartez, eta elkarlan-prozesu baten bitartez, proiektu horrek lagundu egin du giza eskubideen

arteko harremanak, garapen jasangarri barne-hartzailea eta Euskadiko enpresa-jarduera eta haren balio-katean gehiago ulertzen.

Proiektuaren emaitzak honako hauek izan dira: alde batetik portaera-kode bat eta giza eskubideen estandar bat, energia-sektorean ezartzeko, zeinek finkatzen baititu gutxieneko printzipio batzuk enpresetako

praktikak eta eragiketak, bai eta Euskadiko energia-industriako enpresen hornitzaileenek, giza eskubideak eta oinarriko askatasunak errespetatzen dituztela. Eta bestetik, ebaluazio eta auditoretzako lanabes bat, giza eskubideekin ados dagoena hornitze-katean, ezartzeko interesa duten enpresa guztietara zabalik dagoen tresna bezala diseinatua.



Global Training beka piramidearen oinarria hurbiltzen dira

Innobasqueren “Laugarren Sektorea eta PO-Nazioartekotzea” ekipoak elkarlanean aritu da Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailarekin Global Training 2013 Beka-Programan espezializazio berri bat txertatzeko Piramidearen Oinarria esparruan.

Joan den urteko esperientzia pilotuaren ondoren, zeinean Enara Escobosa bekadunak Global Training bere praktikak Tailandian burutu baitzituen, eteak nazioartekotzeko Piramidearen Oinarrian fokapen hori inplementatzean, esparru horretan parte hartzen duten enpresen kopurua zabaltzea erabaki zen, zeren eta gero eta beharrezkoago baita enpresentzat alor bakoitzean espezializaturiko profesionalengandik laguntza hartzea.

Horrela, nazioartekotze-gaian prestakuntza-, gaitze eta praktika-beka hauetako bat eman zitzaizen 500 gazteetarik,



Arantza Tapia bekadun gazteekin.

gaur egun 3 POko esparruan ari dira lanean.

Urkide Berrikuntza Zentroan, Uruguaiako Unibertsitate Katolikoarekin elkarlanean, eta Anesvad Fundazioa, ALERT Indiarekin elkarlanean, horiek dira bekadunei POko proiektutan lan egiteko aukera eskaini dieten enpresetako batzuk 6 hilabetez, alde aurretik planifikatutako prestakuntza-plan batekin.

“Global Training” Beken esparruan, bada UnLtd (Erresuma Batua) antolakuntza lanean ari den bekadun bat, POko merkatuetan presente dagoen “Global Social Entrepreneurship Network” delakoan, nazioartekotze eta ekintzailtzan euskal eragileen guztientzat negozio-aukerak identifikatzeko.

Hiriak, negozio-aukera bat maila globalean

Efizientzian eta jasangarritasunean oinarritutako hirien eraldaketa hazkuntza globaleko motor bat da, garatzen ari diren merkatuetan batik bat, hala nola Latinoamerikan, Asian edo Afrikan. Hartara, Latinoamerikan eta Kariben espero den inbertsio-bolumena, 2025 arte 12.500 milioi eurokoa da urtean.

Guztiarekin ere, hazten ari den merkatu horren aldeko apustuak balioa sortzeko eta nazioarteko merkatuetara hurbiltzeko eredu berri bat eskatzen du, antolakuntza zenbaiten arteko elkarlanean oinarritua irtenbide teknologiko moldakorrak, eskalagarriak eta lehiakorak sortzeko.

Behar horri erantzuna emateko, Southern Europe's Cleantech Hub ekimenaren esparruan "Economic power of cities" proiektua sortu da hasiera batean 6 enpresa konprometitutik eta irtenbide integraleko traxzioa dutenek eratuak: CAF, Sener, Idom, LKS Ingeniaritza, Degrémont Iberia eta Mondragon Korporazioa. Proiektu honen helburua aukerak identifikatzea da

nazioarte-mailako hiri-ereldaketen esparruan, zeini banaka enpresa bakoitzak ezin baitie irtenbide osorik eman (hirigintza-diseinua, plangintza, ingeniaritza, irtenbide teknologikoak, sentsibilizazioa eta hiri-erabilerako bulkada, eta abar), eta haiek estaltzera iritsi ahal izatea enpresa desberdinen gaitasunen baturarekin beraien artean eta/edo beste eragile posible

batzuekin hala nola erakunde publikoak (aukerak sustatuz eta proiektu frogagarriak planteatuz), erakunde finantzarioak edo zerbitzu aurreratuko enpresak (hirigintzan, ingeniaritzan, aholkularitzan, teknologia-zentroetan, eta abarretan adituak).



BWater, hondar urak kudeatu eta tratatzeko berrikuntza "made in Euskadi"

Bidatek, Conaqua, Fagor Edergarden, HBiO Reto XXI, Innobak, Likuid, Otari eta SUDS dira gaur egun BWater eratzten duten zortzi enpresak, ete berritzaileen aliantza estrategikoa, zeinen helburua merkaturatzea baita, nazioarte-mailan, ura eta hondar-urak tratatzeko Bilbao Bizkaiak eta Innobasquek joan den azaroaren 19an, Geltokian bildu zuten irtenbide teknologiko jasangarrien baterako eskaintza bat, hiri- eta industria-barrutietan.

Galindoko (Sestao) Hondar Urak Arazteko Uren Partzuergoak dei egin die uraren ziklo integralaren kudeatzaileak diren erakunde batzuen arduradunei, udal, aldundi eta Euskadiko enpresa espezializatuei proiektu horren berri emateko, helburu hirukoitz batekin. Alde batetik, erakutsi egin nahi da Euskadin zer gaitasun berrikuntza teknologikorako dagoen uren kudeaketan eta tratamenduan, teknologia berri hautabidezkoak eta dagoeneko izan badirenekiko osagarriak, hondar-ur hiriko eta industriako ur guztiei irtenbidea ematera



Uren Partzuergoan topaketa.

bideratuak, bai eta euri-urari ere. Bestalde, aliantzako enpresen elkarlana sutatu nahi da partzuergo eta uraren kudeaketan tarteko diren gainerako eragileekin, teknologia horiek aplikatzeko aukerak bilatuz efektu erakusleko proiektutan Euskadin, zeinek eskainiko

baitzikiete zuzeneko abantailak euskal hiritarrei. Eta, azkenik, Alianza BWater-ek eskaintako teknologia nazioartekotzeko gaitasunak transmititzea, dagoeneko munduan zehar presentzia badutenak (Amerika, Asia, Afrika eta Ozeania).

Optimitive-k 1,4 milioi euro lortu ditu GGM Venture Capital kapital-arriskuko funtsetik

Optimitive arabar enpresa, Innobasqueren bazkidea eta Southern Europe's Cleantech Hub ekimenaren aterkipean garatutako jarduera desberdinetan partaide denak, joan den azaroan 1,4 milioi euro lortu zituen GGM Venture Capital-en aldetik, zein baita arrisku-kapitaleko funtsa inbertsiora bideratua Europako energia-sektoreko enpresa berrien hasierako fasean.

Euskal konpainia funtsez hornitzea erabaki zuen zioetako bat Optimitiveren gaitasuna da bere bezeroen beharrei lastertasunez erantzuteko, 3 hilabeteko denboraldi batez beste batzuek antzeko irtenbideetarako erabiltzen duten urtebeteko epearen aurrean.

Optimitive industria-prozesuetarako energia-efizientzia eta teknologia garbietako (cleantech) zerbitzuetan espezializatutako enpresa da, zeinek 2013ko maiatzean Surgeren laguntza lortu baitzuen, energiaren sektoreko proiektuen lehen azeleratzailetzat hartzen dena, eta egoitza Hustonen (EEBB) du.

GGM Venture Capitalekin inbertsio-erronda ixtea egingarria izan da, hain zuzen ere, Surge azeleragailuak proiektuari emandako



bulkadarengatik, hasieran 50.000 dolarreko inbertsioarekin, eta Bulka Business Angels Euskal sarearen laguntzarengatik, zein baita

Crece+ de Orkestra plataformaren bazkidea eta Innobasquek kudeatutako Cleantech iNNvest sarearengatik.

Ideablek Innobasqueko Enpresen Azeleragailuaren zigilua hartu du

Ideable, pertsonen bizitza hobetzeko teknologia-produktuetako enpresa, joan den irailean Innobasqueko Enpresen Azeleragailuaren zigilua hartu duen bosgarren enpresa bihurtu zen, eta horrek ziurtatzen du produktu edo zerbitzu berritzaileak sortzeko gaitasun handia duen proiektu bat dela, nazioarte-merkatuan arrakasta-aukerak dituena eta garatu eta hazteko ahalmen handia duena.

Innobasque Azeleragailuan sartu zenetik, haren aditu eta bazkideen sarearen eskutik, Ideable Solutions-ekin elkarlanean aritu izan da bere hazkuntza areagotzeko, Hib S*Concept, Virtualware, Gese eta Bidatek-ekin egin duen bezala, izan ere horiek dira aurretiaz azeleragailuan txertatu diren enpresak.

Zehatz esateko, batera egindako elkarrekin egindako lana honako hau izan da: produktua adinekoen arretako segmentu argi eta garbi profesionalera bideratzea izan da, eta bestalde, esperientzia eta merkatu berriak irekitzeko elkarlanean aritza.



Ezkerretik eskuinera: Iñaki Bartolomé eta Txema Villate.

Ildo horretatik, esperientzia pilotu bat burutzeko lanean ari dira IMQ Taleko Igorco Egoitzaren elkarlanarekin, non bertako egoiliarrek Ideableren, Eldersarea plataformaren baliagarritasuna frogatuko baitute, zeinek baitu adineko pertsonentzat diseinatutako tabletentzako ezarpen bat eta

App mugikor kudeaketako web atari bat senide eta zaintzaileentzat. Proiektu horrekin hobetu egin nahi da adinekoen autonomia eta ahalduntzea, arreta sozio-sanitarioaren kostuak murriztea eta gaur eguneko tele-laguntzaren zerbitzuak hobetzea.

Osasuneko 3 proiektu berritzailek finantzazioa lortu dute Crowdsasunaren bitartez

Innobasquek, "La Caixa" Gizarte Ekintza eta Goteo Euskadi sarearekin elkarlanean, abian jarri zuen crowdfundingeko ekimen hau, zeinak baitaude bideratuak arazoak edo osasunaren eta Euskadiko bizitza osasungarriaren barrutiko beharrak konpontzera, eta era aske eta irekian egiteko bokazioarekin,

Deialdira aurkeztu ziren 26 proiektuetatik, 5 aukeratu ziren finantzazioaren lehen errondan parte hartzeko, zeinean lortu behar baitzuten bigarren errondara pasatzeko beharrezkoa zen gutxieneko aurrekontua, optimizazioarena. Denboraldi horretan, Crowdsasunak,



"5 proiektuen videoa"



Ezkerretik eskuinera:
Marc Ruiz de
Minteguia eta Asier
Martínez del Río.
Argazkia: Asvasam



Argazkia: Farapi

Innobasqueren ekarpenarekin eta "La Caixa" Gizarte Ekintzaren elkarlanarekin, osagarritu egin zituen hiritarrek egindako banakako ekarpenak proiektu bakoitzari Goteoren bitartez, 12.000 euroko Capital Erregarioko poltsarekin, hartara efektu biderkatzaile bat lortuz eta inbertsio-era sozial ardurakideak sustatuz.

Aurreikusitako finantzazio kolektiboko 2 errondak osatu ondoren, 3 izan dira funtsak lortu dituzten proiektuak. Portal CUIDADANO,

Farapik sustatua, auzoei laguntzeko sare bat eratzeke atarrietan, komunitate, etxadi edo auzunetan ezarriko dena, halako moldez, non pertsonak elkarri lagunduko dioten erantzukidetzako hiritarreko sare bat eratu. Asvasameko Gimnastika-leku Emozionala adimen emozionala landu eta ekintzaratzeko era pertsonalizatuan, bost prestakuntza-mailaren bitartez. Eta haurren pozoitzeari buruzko azterlan bat, Gurutzetako (Bizkaia) Unibertsitate Ospitaleko Pediatriako Larrialdietako mediku-talde batek burutua, zeinek gidatzen baitu behatoki toxikologiko bat, mundu-mailan, zeinen helburua baita ahalik eta datu-kopuru handiena atxikitzea haurren gertatutako pozoitze-gertaerei buruz, neurri prebenitzaile eraginkorrak garatzeko osasun-arazo kezkarri horri aurre egiteko.

3 proiektuek guztira 24.050 euro eskatzen zituzten, eta horietatik 22.887 euro lortu dira, eta horrek 95,16% esan nahi du. 312 ko-finantzatzaileek burututako batez besteko ekarpenak 40-45 euro ingurukoak izan dira.

Ezkerretik eskuinera: Eunáte Arana,
Javier Benito, Santiago Mintegi, Beatriz
Azcunaga, Yordana Acedo eta Nerea
Salmón.
Argazkia: Gurutzetako Ospitalea



Gosasun web-gunea abiaraztea

Joan den azaroan Gosasun bizi-ohitura osasungarriago batzuen aldeko web-gunea abiarazi zen.

Gune horren helburua honako hau da: Euskadin elikaduraren, jarduera fisikoaren eta/edo osasun emozionalaren bitartez ohitura osasungarriak sustatzen dituzten eragileak talde batean sartzea eta haiei ikusgaitasuna ematea.

Gosasun eragile bakoitzak soslai pertsonalizatu bat sor dezake, non partekatu dituen bere ohitura osasungarriak sustatzeko ekimenak edo jarduerak. Gainera, jarduera horiek Gosasun zigilua jaso dezakete, zeinek aitortzen baitu ohitura osasungarriak sustatzearekiko eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzearekiko konpromisoa.

Gaur egun, 60 bat erakunde sortu dute beren Gosasun eragile soslaia, eta web-guneak hamabost bat jarduera ditu. Asmo bat du: Euskadiko mapa bat taxutzea dauden osasun-aktiboak erakutsiko dituen, eta eragile interesatuen artean harremanak erraztea dagoeneko finkatuta dauden praktikak

ezartzeko edo hedatzeko. Gosasunen web-guneko erregistroa oso era errazean egiten da eta inolako kosturik gabe, formulario baten bitartez, eta lehen urratsa da lanean hasteko gainerako Gosasun eragileekin batera Euskadiko bizitza osasungarriago baten alde.



Benetako partaidetza Eugenio Moliníren eskutik

Adimen Emozionalaren Partzuergoak, Innobasquerekin koordinaturik, urriaren 17-18an eta azaroaren 7-8an, "Benetako partaidetzatik asmozko aldaketara" ikastaroa antolatu zuen, gai horretan aditua den Eugenio Moliní eman.

Prestakuntza horren helburu nagusia - antolakunde desberdinetako 22 pertsonak parte hartu zuten bertan- partaideak entrenatzea da aldaketa- eta eraldaketa-prozesuak diseinatu, kudeatu eta bideratzeko, zeinen arrakasta haren líder eta sustatzaileen autoritatearen mendean egongo den, edota interes desberdineko aktore askoren suharrak eta partaidetzaren mendean. Oinarriko ikastaro bat da enpresa-antolakuntza baten barruko partaidetza-prozesu baten xehetasunak ezagutzeko interesa daten pertsona guztientzat.

Prestakuntza banatu zen lau egunetan zehar, pertsona parte-hartzaileek gaitasunak garatu zituzten, trebetasunak eskuratu



"Aldaketa asmozkoa benetako partaidetzatik" ikastaroko parte-hartzaileak.

zituzten eta lanabesak erabiltzen entrenatu ziren, zeinek aukera emango baitie edozein erakunde, enpresa edo gizarte-sisteman esku hartzen nahi den norabidean alda dadin.

Hartara, ikastaroaren lehen zatian oinarriko baloreak aztertu eta ulertzeko saio kontzeptualenak izan ziren; aldiz, bigarren

zatian, antolakuntza eta testuinguru teknikiari goko prestakuntza ikasteko gakoak eman ziren, bai eta inguruneak izan behar dituen baldintzak partaidetza-prozesu burutu ahal izateko. Baldintza horien artean gardentasun-gogoia eta konfiantza nabarmendu behar dira.



“Berrikuntza-ekipoak eraldaketa-tresna bezala” proiektuaren edizio berria

Proiektuko parte-hartzaileak.

Joan den azaroan gertatu zen “Berrikuntza-ekipoak eraldaketa-tresna bezala” ikerketa-prestakuntza-ekintzako proiektuaren edizio berria abiaraztea, UPV/EHUko Psikologia Departamentuak eta Adimen Emozionalaren Partzuergoak sustaturik.

Zortzi dira proiektuaren edizio berrian parte hartzen ari diren erakundeak: Artez, Vitoria-Gasteizko Udala, Azti, Denokin, Etorikuntza, Kaledorkayico, Ortzadar eta Novia Salcedo Fundazioa eta horiekin lan egingo da urtebetean zehar, berrikuntza-ekipoen prestakuntza-dinamikara hurbiltzeko aukera emango dieten barne-gaitasunak garatzeko, berrikuntza-proiektuak garatu eta ikaskuntza

ekintzatik sustatzeko.

Gainera, proiektuaren garapenak, ikerkuntzaren ikuspegitik, ezagutza sortzea ahalbidetuko du berrikuntza-ekipoekiko harremanean eraldaketa-tresna bezala pertsonen eta garapen-antolakuntzaren mailan.

Ekipo-lana bitarteko bat, tresna bat eta teknika bat da elkarlanean aritzea ikasteko. Helburua honako hau da: pertsona desberdinen artean ezinbesteko lehia erabiltzen ikastea, elkarlan mesedegarri baten mugen barruan mantenduz haientzat guztientzat. Elkarlanean aritzea zerbait berria eraikitzea da desberdintasunetik abiatuta; gauza materialak, harreman-erak, proiektuak, esanahiak eta balore partekatutak.

Erabiltzen ari diren metodologia proiektuaren ekipo ikertzaileak aurreko edizioan pixkanaka garatu duena da eta “Berrikuntza Ekipoen Bideratzaileak” argitalpenean jasota dagoena.



“Berrikuntza-ekipoak eraldaketa-tresna bezala”

Xabier Maidaganek Ingenia saria hartu du

Joan den abenduan Xabier Maidagan CIC marGUNEko gidari eta Innobasqueko aholkulari adituak Ingenia 2013 Ingenia sari jaso zuen marina-erremintaren sektorean eta I+G eta berrikuntzako arloetan egindako ibilbide luzearengatik. Saria, Bilboko Ingeniarrien Fundazioak ematen du eta ingeniartzarekin zerikusia duten pertsonak, lan-ekipoek, enpresek edo erakundeek burututako lan profesional eta gizabidezkoaren aitortza bat da.

Xabier Maidaganekin batera, Uren



Ezkerretik eskuinera: Ibon Areso eta Xabier Maidagan. Argazkia: Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoko Prentsa Bulegoa

Partzuergoak ere jaso zuen saria 1967tik garatutako lanarengatik, zeini esker burutu baitira Bizkaiko ibai-ubideen birsorkuntza, garbikuntza eta saneamendua, Euskal Herrian ingurumen-gaietan azken hamarkadetan gertatu den ekimenik garrantzitsuenetako bat, batez ere, Nerbioi itsasadarraren arloan.

Aurreko edizioetako sariak honako figura hauentzat izan dira: Joseba Jaureguizar (Tecnaliako zuzendari nagusia), Juan Celaya (Cegasa), Santiago de Ybarra (Vocento), Luis María Cañada (Vicinay Cadenas), Josu de Lapatza (Amurrio Trenbidea), Javier Madariaga (Ingeteam) edo Baltasar Errazti (Grupo Tamoin) eta Idom, Iberinco, Sener Panda Software, Ormazabal, ITP edo Metro Bilbao enpresak.

Euskal aeronautikako enpresak elkarlaneko berrikuntzan erreferente izateko

Gas-turbina bat fabrikatuko duen berrikuntzako euskal polo aeronautiko bat garatzeko asmoz, **ITP, Batz, Danobat, Laip, Novalti, Ona Electroerosión, Talleres de Precisión GAI**, eta **Ulma Lazkao Forging**-ekin asoziatu zen PAINT ikerketa-proiektuaren lider izateko. Turbinetako Berrikuntzarako Polo Aeronautikoak (PAINT) ustiatu egin nahi ditu ziklikoki merkatu aeronautikoan aurkezten diren negozio-aukerak eta errealitate bihurtzen dituzten Boeing 737 eta Airbus 320 hegazkinen birmotorizazio-ekimenak. Lankidetzari-ikerketako proiektu askonahi hori bazkide lankideen gaur eguneko gaitasunak areagotu egiten ditu eta berriak garatzen ditu, hornitze-sare autonomo bat eraikitzeko asmoarekin, zeina erreferentziazat hartu ahal izango duten motorren jatorrizko fabrikatzaileek.

PAINT industria-ikerkuntzako produktu estrategiko bat da Etorgairen osagai dena, Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasuneko Sailak bultzatua, Spri Taldearen bitartez, Ikerkuntzak jaso egingo du bertan partaide diren bazkideen bikaintasun-maila, gaitasun teknologiko berriak garatuko ditu bazkideengan eta Zientzia, Teknología eta Berrikuntzako Euskal Sarearen maila teknologikoa hazten lagunduko du.

PAINTek aukera emango du turbinen balio-katearen parte handi bateko gaitasunak era errealean mihizatzeke, Euskadiren barruan, oraindik batu gabe dauden kate-mailak lotuz. Honako hau da:

- **Lehengaia:** burdinurtuaz eta lehengaiak gainera eskala handian, forjatzaile bat izango litzateke (Ulma) eta txapa-produktuen hornitzaile bat (Batz).

- **Mekanizatua:** makina erremintaren hornitzaileen arteko integrazioa indartu (Danobat), amarratze-elementuen fabrikatzaileak (Laip eta Gai) eta mekanizatzaileak (ITP eta Novalti), gainera kontuan izanez mekanizatzaile ez konbentzionalak (Ona).

- **Soldaketa:** ITPen gaitasunak osatzea energia handiko eta mihizatze handien soldaketan. Bestalde, ITP bere gaitasuna osatuko luke epe laburragoan diseinatzeko, bizi-iragarpeneko erremintak eta prozesu optimizatuak eskura izatean, bazkideekiko elkarlanean.

Argazkiak: ITP



Bioeskola BBK: nola sortu 24 enplegu berrikuntza sozialeko proiektu batekin



Argazkia: Supperstudio

Bioeskola BBK Emaus Bilboko berrikuntza sozialeko ekimen bat da dagoeneko 24 lanpostu sortu dituena, buruko gaixotasunen bat duten eta bazterkeria sozialeko arriskuan dauden pertsonen artean 12 emakume eta 12 gizonezko talde hori, Osakidetzako Osasun mentaleko Sareko pazienteak guztiak, udaren bukaeratik 88 saski entregatzen dituzte astero.

Sortek denboraldiko produktuak dakartzate beren baitan era jasangarrian nekazaritza ekologikoko irizpideen ekoiztiak eta 10 eta 16 euro bitarteko prezioan merkaturatzen dira.

Proiektu honek barruti bat baino gehiago batzen ditu: bazterkeria sozialeko arriskuan dauden pertsonen gizarte- eta lan-integrazioa, lehen sektorea sendotzea, garapen jasangarriaren prestakuntza eta sentsibilizazioa, fokapen berritzaile batetik, ikuspegi horiek guztiak bateratuz.

Bioeskola BBK eragile desberdin baten baino gehiagoren arteko elkarlana eta ekipo-lanaren fruitua da. BBKren Gizarte Ekintzak hasieran 370.000 euroko ekarpena eskaini zuen ekipamenduak eta finkako hirigintza eraiki ahal izateko, Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkearen jabetzako 12 hektareako lursailak, Zamudion kokatuak. Inbertsio hark beharrezko materiala eskuratzeko ere balio izan zuen, negutegiak eta langunea eraikitzeko. Martxoan prestakuntzarako ikasgela bat eraikiko da mota honetako nekazaritza-ekoizpenetan Bizkaiko eskolaumeak sentiberatzeko.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak eta Europar Funts Sozialak kofinantzatu egiten dute langileei ematen zaien prestakuntza beren zereginak garatu ditzaten, eta hartara, gaitu egiten dira lehen sektoreko lanpostu batean sar daitezten. Zamudioko Udalak proiektuari eusten laguntzen du. Innobasque ere lehen unetik tartean sartu

da ekimen honetan, haren sustatzaileen esku jarriz bere harreman-sarea, eta horrek aukera eman du arduradun egokiak identifikatu eta haiekin kontaktuan sartzeko ekimen horia biarazteko, Innobasque Exchangeren lehen edizioan 2012ko uztailean aurkeztu zena.

Helburua epe luzera jasangarritasuna lortzea da eta horretarako, urtean 8.000 saski merkaturatu nahi dira produktu ekologikoekin, bitartekaririk gabeko zuzeneko salmenta-sistema batean.

Argazkia: Club Campos blog



hau partekatu nahi dut . . .

familia-ETE batentzako

nazioartekotzea

Sarritan entzuten dugu euskal enpresei tamaina falta zaigula kanpoan lehiatzeko.

Zalantzarik gabe, egia da tamainak laguntzen duela nazioartekotze-prozesuei aurre egiterakoan. Baina horrek ez du esan nahi tamaina eragozpen gaindiezina denik enpresa egiazki nazioartekotua izateko. Askok dira atzerrian garaile diren ETEak.

Gure kasuan EGA Master bere sorreratik 1990 jaio zen eskuko erreminta-fabrikatzaile bezala nazioarteko bokazioarekin. Hainbestearino, non gure bizitzako lehen hamarkadan nazioarteko merkatuetan ia bakarrik aritu ginen. Izatez, gure historiako bigarren hamarkadan, lehen aldiz merkatu nazionalari ekin genionean, esportazioak beti izan dira batez beste salmenta osoaren %80 inguru.

Gaur egun %90 inguru esportatzen dugu 150 herrialde baino gehiagotara, eta geu gara merkatu kopuru handienera esportatzen duen euskal enpresa, eta horietako batzuk exotikoak dira: Maurizio, Sudan, Brunei, Papua, Jamaika edo Tahiti.

Nazioartekotzeko gakoa lehiakideengandik bereziko gaituen elementu desberdingarri bat bilatzean datza. Ez baduzu aurkitzen elementu behar adina desberdingarria kondentatua zaude prezioan lehiatzera eta horretan badakigu euskal enpresek gauzak zail dauzkagula...

Gure estrategia desberdingarria honako hau izan da: eskuko erreminta-aukera benetan osoa eskaintzea, erabiltzaile industrialaren beharrentzako irtenbide integral bat eskainiz. Hartara, gure bezeroek murriztu egin dezakete beren hornitzaile-kopurua, hartara kostu administratiboak eta logistikoak aurreztuz. Gainera saiatu egiten gara balio gehiagoren ekarpena egiten segurtasuna hobetzearen bitartez, lanak era azkarrago eta eraginkorragoan egitea ahalbidetzen duten

erremintak fabrikatuz. Teknikari batek denbora gutxiagoan mantentze- edo konpontze-lana egin dezakeenean zure produktuarekin konkurrentziak eskaintzen dionaren aldean, orduan prezioa bigarren mailako aldagai bihurtzen da. Hainbestearino, non gaur egun bezero asiarrak, afrikarrak edo arabiar asko ditugun, erosten duten guztia hegazkinez jasotzen duten, horrek berekin dakarren izugarriko gain-kostuarekin.

Salmentaren nazioartekotzeak, hau da, esportazioak lehiakortasun jasagarria hobetzeko hiru mekanismo aktibatzen ditu gutxienez.

- Alde batetik, **ikaskuntza eta etengabeko hobetzearen iturri sortzaile bihurtzen da.** Hoberenen aurka lehiatuz, haien merkatu propioetan, hantxe ematen du nor berak daukanik eta hoberena. Horrela aktibatzen dira enpresako bilakaera-eta egokitze-mekanismoak.

- Bestalde, **banatzaileak eta ordezkariak ahalik eta herrialde gehienetan izateak antenak, radarrak eta mundu guztiak berrietutako behatokiak izatea ematen du.** Tresna horiek informazio oso baliotsua atzemateko balio dute denbora errealean konkurrentziak egiten duenaz, merkatuko behar berriez, teknologia hazkorrez edo beste edozein informazioz, zeinek behar bezala prozesaturik, zenbait pauso aurretik ibiltzeko aukera emango baitigu batez ere erregio- edo toki-mailan diharduten lehiakideen

Aner Garmendia, Ega Master-eko zuzendari nagusia

aurretik. Horrela har diezaiekegu aurrea beste herrialde batzuetatik ezinbestez etorriko diren joerei.

- Azkenik, nazioartekotzeak era oso esanguratsuan laguntzen du **arriskua desberdintzen**. Desberdintze osasungarri batek babes-maila bat eskainiko digu krisirik gogorrenaren aurrean ere, zeren eta merkatu guztiak ez baitaude beti krisian aldi berean, eta krisiak ez baitu izango intentsitate bera herrialde guztietan. Desberdintze muturrekoak ekidin egingo du, gainera, ezein merkaturen mendean erabat egotea, eta horregatik bezeroekiko gure kokaera mendekotasun gutxiagokoa izango da eta gaitasun negoziatzaile handiagokoa.

Inondik ere aholkagarria da gure presentzia indartzea Europa edo Latinoamerika bezalako usadiozko esportazio-merkatuez harago. Gorantz datozen merkatuak hala nola: Ekialde Ertaina, Asia edo Afrika ahalmen oso handikoak dira, zeren eta merkatu horietan oraindik dena egiteko baitago eta merkatu-kuota mantentze hutsez hazi egin daiteke termino absolututan oso modu bizkorrean. Herrialde horietan, oro har, eskaintza-eskaera harremana askoz egokiagoa da eskaintzaileentzat Europan gertatzen dena

baino; beraz salmenta-marjinak eskuarki nabarmen hobeak izaten dira. Gure kasuan prezio altu eta hobearekin aurkitzen ditugun herrialdeak hauek dira: Txina, Nigeria, Irak, Sudan, Gabon, Vietnam edo Congo. Gorantz datozen merkatuek gure salmenta osoaren %45 hartzen dute.

Familia-enpresari buruzko azken gogoeta: solaskidetzeta-esparru egonkor eta iraunkorra eskaintzen dugu, eta horrek konfiantza sortzen du, batez ere gorantz datozen merkatuetan, non tokiko enpresa gehienak, ia denak ez esatearren, halaber, familia-enpresak baitira.



La Salle Berrozpe eta Lauro Ikastola FLL Euskadiren bosgarren edizioaren irabazleak

Andoaino (Gipuzkoa) La Salle Berrozpe eta Loiuo (Bizkaia) Lauro Ikastolako ekipoak izan ziren Euskadiko FIRST Lego League (FLL) zientzia eta robotikako torneoaren bosgarren edizioaren irabazleak.

Bi ekipoek izan ziren ongien balioetsiak torneoaren hiru barrutietan (robotaren garapena, zientzia-proiektua eta baloreak), zeinak urtero gizatiariarekin zerikusia duen gai baten ingurukoak izaten baitira. 2013an ekipoek erantzun berritzaileak eman beharreko erronka hondamendi naturalak ziren: nola prestatu haien efektuak gutxitzeko, zer erataraz berreraiki hondatutako guneak eta biztanleria salbu mantendu edo mekanismoak detektatu tsunamiak, uholdeak, suteak edo



La Salle Berrozpeko ekipoa.

urakanak prebenitzeko.

Ekipo gipuzkoarrak GKE bat aurkeztu zuen; aldiz, bizkaitar ekipoak irtenbide teknikoago bat garatu zuen, tximistak detektatzeko sistema bat oihan-inguruetan sor daitekeen

sua prebenitzeko.

Bi taldeak FLL torneoaren hurrengo faserako, espainiar finalerako prestatzen ari dira, izan ere Bartzelonan egingo da 2014ko martxoaren 22an.

Euskaltelek, URAk, Tecnaliak eta IK4k FLL Euskadiko ekipoei prestakuntza ematen diete

Euskalteleko aditu eta ikertzaileek, URA agentzia, Azti-Tecnalia, Ceit-IK4, Tecnalia eta Vicomtech-IK4k 2013ko urrian FLL Euskadin parte hartzen ari ziren ikasleei hondamendi naturalak prebenitzen laguntzen dituzten irtenbide berritzaileetako batzuk erakutsi zituzten.

Adibidez, honako hau irakatsi zieten LINE aldibereko mezularitza-zerbitzua 2011an Japonian izandako lurrikararen erantzun bezala garatu zela eroritako telefonia-zerbitzuak ordezkatzeko; zenbat denbora behar duen enpresa batek berriro abian jartzeko naturaren eraso bat jasaten badu edo nola kudeatzen diren azpiegitura kritikoak eta ingurumena erasaten dituzten krisiak. Gainera ikerketa-proiektuak erakutsi zituzten Euskadin ohikoena diren natura-fenomenoak buruz (enbatak, ekaitzak,



Prestakuntza Euskaltelen egoitzan.

suteak eta uholdeak), bai eta meteorologia-iragarpeneko sistemak eta fenomeno horiek simulatu eta detektatzeko teknologiak ere. Izan zen astia ingeniariaritzaren obra zibiletako esku-hartzeen berri emateko, zeinak burutzen baitira uholdeek eragiten dituzten kalteak prebenitzeko.

Programa teoriko eta praktikoa honekin honako hau bilatzen da: ikasleek FLL Euskadiren erronkaren izaera zientifikoari buruz ikastea (2013an, naturaren sumina), eta ezagutu ditzatela irtenbide finkatuak beren proiektu propioetarako iradokigarri izan dakizkiekeenak.

Euskal berrikuntzaren erronkak Innobasqueren Astearteetan

Nola kudeatzen da antolaeren ezagutza? Norantz jo behar du gure hezkuntza-sistemak arrakastaz aurre egiteko planteatzen zaizkigun erronkei? Zein dira europar erregio arrakastatsuenak genero-tartea murriztuz? Zer erreminta daude gure irismenean mundu hizkuntza-anitz batean bizi eta lan egiteko? Zein dira aurre egin beharko diegun zientzia eta teknologiko erronkak?

Horiei eta beste auzi batzuei eman diete erantzuna Innobasqueren Astearteetan elkartu diren 40 hizlari baino gehiagok urtearen bigarren seihilekoan. Beren esperientzia profesionaletik lehen pertsonan hitz egin duten hizlariak dagoeneko abian diren berrikuntza-proiektuak ezagutaraziz.

Guztira, 5 jardunalditarako deia egin da eta 600 pertsona baino gehiago izan dira beraietan, zeinetan ezagutarazi baitira enpresa, hezkuntza, zientzia, teknologia, administrazioa eta ikerketaren munduko barrutiko 49 esperientzia.



Seihilekoan Innobasqueren Astearteetan laguntzaile izan diren erakundeak:

Alhóndiga Bilbao	Enpresa Estrategia	Mondragon Unibertsitatea
Arteche	Erreakzioa Kolektiboa	Natural Vox
Artzai-Gazta	Eudel	Orkestra
B+I Strategy	Eusko Jaurlaritza	RBT Consulting
Basque Social Innovation	FEVAS	Sabadell Guipuzcoano
BCAM	Genetrix	San Luis La Salle
CIC tourGUNE	Gipuzkoako Profesionalen eta Enpresaburuen Elkarte (ASPEGI)	Tecnalía
Coaching Estrategikoa	IES Miguel de Unamuno	Telefónica Katedra-Deusto
Deusto Business School	Ik4-Tekniker	TISA
Deustuko Unibertsitatea	Klask, kronikalari artistikoak	Tumaker
Dualia	Langune	UPV/EHU
Elhuyar	Lauaxeta ikastola	Uria & Menéndez
Emakunde	Mondragon Lingua	Urkide Ikastetxea
Engranajes Juaristi		Zerbitzu Sozial Integratuak

Innobasqueko 3 presidenteak joan den azaroan elkartu ziren Agentziaren egoitzan



Ezkerretik eskuinera: Pedro Luis Uriarte, Alberto García-Erauzkin eta Guillermo Ulacia.

Innobasque elkarlanean aritu da mini Maker Faire Bilboko sortzaileen ferian

Andoaino (Gipuzkoa) La Salle Berrozpe eta Lioiku (Bizkaia) Lauro Ikastolako ekipoak izan ziren Euskadiko FIRST Lego League (FLL) zientzia eta robotikako torneoaren bosgarren edizioaren irabazleak.

Bi ekipoek izan ziren ongien balioetsiak torneoaren hiru barrutietan (robotaren garapena, zientzia-proiektua eta baloreak), zeinak urtero gizateriarekin zerikusia duen gai baten ingurukoak izaten baitira. 2013an ekipoek erantzun berritzaileak eman beharreko erronka hondamendi naturalak ziren: nola prestatu haien efektuak gutxitzeko, zer erataria berreraiki hondatutako gunek eta biztanleria salbu mantendu edo mekanismoak detektatu



Robotika-tailerra mini Maker Faire Bilbako-n.

tsunamiak, uholdeak, suteak edo urakanak prebenitzeko.

Ekipo gipuzkoarrak GKE bat aurkeztu zuen; aldiz, bizkaitar ekipoak irtenbide teknikoago bat garatu zuen, tximistak detektatzeko sistema bat

oihan-inguruetan sor daitekeen sua prebenitzeko. Bi taldeak FLL torneoaren hurrengo faserako, espainiar finalerako prestatzen ari dira, izan ere Bartzelonan egingo da 2014ko martxoaren 22an.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren astea

500 pertsona baino gehiago izan ziren joan azaroaren 4an Bilboko Euskalduna Jauregian Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren XIII Astearen inaugurazioan; ekitaldiaren buru Iñigo Urkullu Lehendakaria izan zen eta, gainera, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Kontseiluko ordezkariak ere bertan izan ziren.

Sarrerako hitzaldia Dr. Beau Lottok egin zuen, pertzepzioaren ikerkuntzan espezializatutako neurozientzialari ezagunak, eta bere hitzaldian frogatu zuen, bere ikerketen emaitzen bitartez eta bertaratuekiko interakzioz, pertsonen beren inguruneaz egiten duten pertzepzioa modifikagarria dela halako moldez, non gauzka beste ikuspegi batetik ikustean irtenbide sortzaileagoak, espero ez diren erantzunak edo lehenago hauteman gabeko aukerak sumatzeko gai direla.

Hitzaldiaren ondoren, Lotto doktoreak solasean jardun zuen Carlos Luna, Angulas Aguinagako zuzendariarekin, zein baita



Ezkerretik eskuinera: Jon Peli Urigüen, Imanol Pradales, Jon Darpón, Arantza Tapia, Alberto García-Erauzkin, Iñigo Urkullu, Beau Lotto, Cristina Uriarte, Iñaki Goizelaia, José M^o Guibert, Iosu Zabala eta Fernando Cossio.

berrasmatze kasu bat ikerketatik eta berrikuntzatik abiatuta; Leire Cancio, Elhuyar Fundazioaren zuzendari nagusia, euskarazko zientzia-dibulgazioan erreferente denarekin; Cristina Oyón, Spriko Ekimen Estrategikoen arduradunarekin eta Arkaitz Carracedo, CIC Bioguneko ikertzaile gaztea 1,5 milioiko beka bat jaso duena Europako Kontseilutik prostatako minbiziaz ikerketa egiteko.

Astearen edizio honetan, Euskadin egiten den zientzia, teknologia eta berrikuntzaren komunikazio sozialeko gertaldi handiena den horretan, ehun eragile baino gehiago izan dira elkarlanean jarduerak antolatuz, euskal gaitasun berritzaile eta zientzia eta teknologiakoak erakustearen helburuarekin, gizartera hurbilduz eta horrela, berrikuntzara emanagoa den ingurune sozial bat sortuz.

Brunch & Learn, Innobasqueko bazkideentzako eta bazkideen ezagutza espezializatua

Brunch & Learn ekimen berri bat da Innobasquek 2013 urtearen azken aldira abian jarria, esperientziak, ezagutza espezializatua, ideiak, teknikak, metodologiak transmititzeko... guneak sortzeko helburuarekin... zeinek sustatu duten ikaskuntza partekatua, komunikazioa eta elkarlana, bai eta bazkideen artean aukerak sortzea ere. Horretarako, Innobasquek 1.000 bazkide baino gehiagoko bere sarearen aditu-gaitasunak, Euskadiko ezagutza aurreratuen eta adituen integratzen duena berrikuntza-gaian.

Brunch & Learn-ek aukera ematen du antolaerak lan-jardunaldien, tailerren eta hitzaldien bitartez ezagutza helaraz dezaten; berrikuntzaren barruti guztietara



bideratutako praktika onak ezagutu ditzaten eta enpresa-esperientzia Innobasqueko gainerako bazkideekin parteka dezaten.

Zerbitzu berri hori abian jarri zen lehen pilotu batean 2013ko azken hiruhilekoan, Roxtec Transit Design-en aurkezpenarekin, kable eta hodietatik pausoak, era sinplean, diseinatzeko doako software bat.

Lan-jardunaldi honetan, ontzi-, energia-, eraikuntza-, industria astun- gas- eta petrolio-merkatuko sektore desberdinetako ingeniartzen diseinuko departamentuetara gidatua, bertaratuek produktuaren hautespina sinpletzen ikasi zuten beharren eta eskakizunen arabera, diseinatze-, eroste- eta muntatze-prozesu guztiak hobetuz.

Innobasque Exchange, elkarlaneko berrikuntza emaitzekin

Sektore eta tamaina desberdinetako enpresen arteko elkarlanak aukera ematen du gaur egun proiektu lehiakorragoak garatzeko edo negozio-unitate berriak sortzeko. Espiritu horrekin, Innobasquek abiarazi zuen duela urte eta erdi, Innobasque Exchange, bazkideei zuzendutako ekimen bat, antolaeren berrikuntza sustatzen duena elkarlaneko prozesuen bitartez.

Bost edizio egin ondoren, eta beraietan 35 proiektu aurkeztu eta gero, elkarlaneko berrikuntza-plataforma hau dagoeneko emaitza batzuk sortzen ari da joint ventures, itun edo produktu berri bezala.

Hartara, HBio eta Elkano Consulting-en itunetik Marketing Angels sortu da, venture capitaleko figura berri bat kanpoan merkaturatzen laguntzen duena, langileria, erreminta eta baliabideen ekarpena eginez.

3Dko egutegi interaktibo, ukigaia eta usnagaia da Urbegiko errealitate birtualaren teknologietatik sortu den produktu berria eta Otzarretaren kalitate handiko komunikazio- eta imprimatze-ezagutza

Innobasque Exchangetik pasatu eta gero,



Innobasque Exchangeko parte-hartzaileak.

Reflectiak enpresa-partzuergo bat sortu ahal izan du Alhymotion teknologia garatu eta merkaturatzeko, aluminioa energia (hidrogeno eta/edo elektrizitate) eraldatzea ahalbidetzen duen ezarpen berri bat energia aurrezte ahalbidetuz, produktuaren eta enpresaren karbonoaren azterna hobetuz, eta ahaltasun berriak irekiz hondakinen-kudeaketarekin asoziatu logistikari. Partzuergoan honako hauek daude: Bostlan, Ingeinnova, Zigor, FEAFA eta AFM, besteak beste.

Bestalde, Ideable Solutions-ek Eldersarea bere tableta aurkeztu zuen adinekoak zaintzeko, bazkide teknologikoak eta merkaturatzaileak bilatuz. Gaur egun akordioak ditu lkatzekin, haren produktu-katalogoan txertatzeko, Gartnerrekin nazioarteko


merkaturan beharrak identifikatzeko eta Orangerekin tablet-hornitzaile bezala.

Innobasque Exchange parte hartzen ari zela, Emaginartek bere informazio-kudeaketaren ukipen-sistemaren erronketako bat bezala detektatu zuen film ukigaiatzat irtenbide tekniko bat bilatu beharra. Horretarako, elkarlan-prozesu bat abiatu zuen Innobasqueekin, gaur egun Emaginarteren hornitzaile estrategikoa, eta horrek aukera eman dio produktu lehiakorrago eta enpresa-emaitza hobeak lortzeko.

Gainera, Minirobotek elkarlan-akordioak lortu ditu, nola Lantegi Batuekin Moway haren robot heziketakoaren muntaketa elektronikoa burutzeko, hala ADNDesign eta Enaidenekin aipaturiko rebotaren diseinua hobetzeko.



Kokamenduan eragina duten faktoreak



Sare sozialetan jardura handiagoa izateak kokamendu hobea esan nahi du



Edukiaren kalitateak eta estekak gero eta garrantzitsuagoak dira

Sare indartsuenak



Zertaz hitz egiten da sarean?

Zure jarraitzaileek zertaz hitz egiten duten eta zer interesatzen zaien zure jarraitzaileei jakiteak hain interakzioan modu eraginkorrean aritzea lagunduko ditu.





Zure eragina gehitu egiten da beste batzuk interakzioan daudenean zurekin edo zure edukiarekin, norbaitek birtxiotzen dizunean, @erantzuten dizunean edo jarraitzen hasten zaizunean.



Euskal berrikuntzaren rankinga Twitter-en

EROSKI CONSUMER
@eroskiconsumer

ERAGINA: 900 JARRAITZALEAK: 28,2K

Universidad Deusto
@deusto

ERAGINA: 881 JARRAITZALEAK: 13,9K

Iberdrola
@iberdrola

ERAGINA: 843 JARRAITZALEAK: 15K

Mugaritz
@Mugaritz

ERAGINA: 819 JARRAITZALEAK: 37,6K

Guggenheim Bilbao
@MuseoGuggenheim

ERAGINA: 795 JARRAITZALEAK: 30,9K

Vitoria-Gasteiz!
@vitoriagasteiz

ERAGINA: 794 JARRAITZALEAK: 14,8K

Innobasque
@Innobasque

ERAGINA: 787 JARRAITZALEAK: 11,4K

Tecnalia
@tecnalia

ERAGINA: 785 JARRAITZALEAK: 7,2K

Donostia Kultura
@donostiakultura

ERAGINA: 782 JARRAITZALEAK: 11,1K

BCulinary Center
@bculinary

ERAGINA: 779 JARRAITZALEAK: 14,5K

UPV/EHU
@upvehu

ERAGINA: 773 JARRAITZALEAK: 10,6K

Corp. MONDRAGON
@esmondragon

ERAGINA: 746 JARRAITZALEAK: 16,5K



Top tweet

Con un poco de unos, se hace mucho para todos! Participa en el [#crowdfunding](http://ow.ly/pnF5H) para proyectos innovadores en salud <http://ow.ly/pnF5H>

ZORIONAKI! La firma bilbaina @ideateca nominada a "pyme del Año" por la revista @Emprendedores <http://ow.ly/pziBM>

Las ganadoras del #inventazolasemana Helena y Loli de @zubietxe han comido con Beau Lotto. Zorionak! <http://t.co/6aFzrMcspW>

Los desafíos de la innovación de la mano de @tumakers @Alianzak4 @tecnalia Artech, SSI y SSI #martesinno <http://t.co/unpjihoHrR>

La élite mundial de la investigación se reúne en Donostia #Quantum13 <http://ow.ly/plyxo>

Las economías sin mujeres no avanzarán #martesinno @emakundeJGV <http://ow.ly/q5ITC>

Sare sozila

Quora
Quora, knowledge market on-line zerbitzu bat

Bideoa

El martes de innovación
Berrikuntza egiten ikasi Pablo Garzarain

Estabaida

LinkedIn
Sareta eta sarearen bidez eragitea
Enpresaren motibazioa, noren esku dago?

Munduari bira berrikuntzaren bitartez

Azken sei hilekoan, euskal berrikuntza sozialak nazioarteko agenda bizia izan du, eta horrek dakar Euskadi lurralde erreferente bezala hautematen hastea gai honetan, barruti horrekin zerikusia duten ekimenen garapenerako aldekoa den berrikuntza-ekosistema bat sortzeko duen gaitasunarengatik. Hartara, Basque Social Innovation joan den uztailan sortua, Social Innovation Exchangeren zuzendaritzako partaide da dagoeneko, zein baita mundu-erreferentziako organoa berrikuntza sozialean, zeinen partaide baita ere Young Foundation britainiarra, zeinen zuendariak bilera bat eskatu baitzuen BSInekin berriki Euskadira egindako bisitaldi batean. Gainera, Costa Ricako ordezkariak batek ere ezagutu nahi izan zuen, Innobasqueren eskutik, zer proiektu ari diren burutzen hemen berrikuntza sozialaren inguruan. Colombiak ere eskatu du Innobasqueren presentzia praktika on bat bezala herrialde latinoamerikar hartan egindako Kongresu batean.

Simon Willis, Young Foundation-en zuzendaria

Simon Willisek zuzentzen du joan den ekainetik Young Foundation, nazioarteko erreferentzia den erakunde britainiarra berrikuntza sozialean aitzindaria delako ezaguna dena. Euskadira egindako bistaldian, Willis Innobasqueren egoitzan bildu zen Basque Social Innovationekin bere erakundearen estrategia aurkezteko eta, behar izanez gero, elkarlanerako bideak urratzeko eta elkarrekin batera lantzeko ekimenak esploratzeko.

Simon Willis

Gobernuzeko berrikuntza-aholkularia Bere Maiestategaren Lan eta Altxor Pentsiotako sailean lan egin zuen. Urritasun fisikoak dituzten pertsonentzako GKEaren zuzendaria Cisco Systemen berrikuntza irekiaren zuzendaria
purpose.com-en sortzailea

Zer eragin dio Basque Social Innovationekin biltzera?

Benetan oso interesaturik nago Euskadiko berrikuntza sozialaren kasuarekin. Mugimendu sozialen rola, euskal identitatea, hizkuntza propioa eta euskal kooperatiben zeregin sinestezina eta ekonomia soziala asko irakats diezaguketen zerbait direlakoan nago.

Zein dira zure erakundearen eta BSIn arteko elkarlan-aukerak?

Uste dut elkarlanerako aukera ugari daudela gure artean. Erregio zenbaitetan lanean ari gara, bereziki Gales, Eskoziak, Ipar Irlandan, eta beste leku batzuetan, non uste baitut badagoela zer ikasi berrikuntza sozialak nola lagundu duen ekonomia soziala eraikitzen.

Halaber, interesgarria da euskal mugimendu sozialen prozesua ikastea, zeinek ez baitute goitik beherako hurbilketarik, batez ere Europaren Iparraldean eta Iparramerikan erabiltzen dena. Bi gizon oso argi biltzearen ideia da, arazoaren irtenbidea aurki dezaten eta hura inplementa dezaten. Hala ere, behar dugunaz era da, askoz oinarritikoagoa den hurbilketa bat, elkarlanekoa, haren gainean gure erazo sozialei erantzuna eraikitzeko: enplegugabezia, hezkuntza, desberdintasuna, kronikotasuna eta Euskadik, Erresuma Batuak

BSIn ordezkarien topaketa Simon Willisekin.



eta gainerako lurraldeek aurre egin beharreko erronka guztiak. Oinarritik ekin, non berrikuntza botere politiko bezala kontsideratzen baita nolabait ere.

Horregatik, elkarlanean aritzeko aukerak izugarriak dira.

Orduan, uste al duzu prozesuei ekiteko modua erabakigarria dela?

Begi-bistakoa da irtenbide guztiak ez datozela merkatutik. Horregatik, "modu" desberdinen aldeko apustua egiten dugu, abian jarri beharreko ekimenaren helburuarekin bat-etortze hobereana zerk duen ikusita: enpresa soziala, irazi-asmodun enpresa, mugimendu soziala...Ekimen bat nola garatzen den ez da alde zuretik finkaturik egon behar duen zerbait.



Young Foundation

Young Foundation, egoitza Londresen duena, mundu guztian ari den fundazio bat da berrikuntza sozialaren bitartez pentsamendua, ekintza eta aldaketa bultzatzen. Haren lanak gai-zerrenda oso zabala hartzen du: osasuna, zahartzea, hezkuntza, etxebizitza, justizia, gazteen lidergoa eta bizi-kalitatea gizarteko behar aldakorrei erantzuna emateko. Gainera, tokiko, erregioko eta nazioko administrazioei zuzenduriko berrikuntza sozialeko metodoen garapenaren liderra da.



AQ`AB`AL-en bisita Innobasquera.

Victor Hugo Morales, Conexo-ren zuzendaria

Costa Ricak Euskadi aukeratu erreferentetzat bere eraldaketa-prozesurako. Joan den azaroan, herrialde hartako AQ`AB`AL-eko ordezkari bat hurbildu zen Innobasquera Euskadin gizartea eta ekonomia eraldatzeko sortutako berrikuntza-ekosistemaren ezaugarriak lehen eskutik ezagutzeko. Victor Hugo Morales, Conexo-Conges, Consorcio para la Gestión de la Economía Social-eko zuzendaria, laneko bilera egina urretik minutu batzuk eskaini zizkigun.

AQ`AB`AL

Ekonomia sozialeko enpresa ertamerikarra eta solidarioa gizarte zibilaren garapen integralerako, Ertamerikako ekonomia sozialeko 6 antolaerak osatua (Honduras, Guatemala, Nicaragua eta Costa Rica), zeinek partekatzen baitute agenda bera ekonomia sozialaren inguruan: enpresa-kudeaketa ingurumenari dagokionez ikuspen arduratsua, antolaeren talentuaren sendotze integrala eta finantzamendu solidarioko tresnak sortzea. Eratzen duten antolaerek 50.000 ekoizle elkartzen dituzte: mini-begetalak, kafea, azukre-kanabera, merkataritza bidezkoa, komunikazio alternatiboa eta laguntza-zerbitzuak ekonomia sozial eta solidarioaren enpresa-kudeaketan.

Zer nabarmenduko zenuke Euskaditik?

Euskal gizarteak eta Costa Ricakoak badituzte ezaugarri komun batzuk, eta horien artean daude kolektibitateko eta ekintzailatzarako joera. Gainera, hiritarren partaidetza handiko gizarteak dira, eta horrek dakar gako makroekonomikoak eta eta sozialak aldekoak izatea. Bestalde, kooperatibismo, enpresa asoziatibo, eteen egitura bat dago, elkarren artean ezaugarri komunekin aurkitzen direnak eta Euskal Herriaren kasuan pertsonengan eta baloreetan oinarritutako kudeaketa-eredu bat izatearen abantaila dago, etenganeko bilakeran eta berrikuntzan dagoena.

Zergatik egin duzu erregio honen aldeko apustua?

Badugu 40. urteetatik datorren historia bat, izan ere, pertsonengan oinarritutako eta

izaera asoziatiboko enpresa mota baten aldeko apustua egin zen, kooperatiben eta ekonomia sozialaren aldekoa.

Urte asko igaro dira eta gaur egun beharrezkoa da kudeaketa-ereduak birformulatzea, praktika onak berriro berrezagutzea. Zalantzarik gabe, Euskal Herrian aurkitzen dugu hobetze- eta berrikuntza- ahalegin iraunkor bat berriz ere arrakastarekin ekonomia berrian sartzea bilatuz, beti ere kooperazioa, solidariotasuna eta autokudeaketa baloreei atxikita. Arrazoi horientatik uste dugu gure prozesu ertamerikarra AQ`AB`AL-en oinarritua, zein baita biltzen gaituen enpresa, makroan elkarlanean aritzea ahalbidetu digu eta mikroan aukerak bilatzea enpresa txikien bitartez, izan ere hemen gauzak oso ongi egiten ari dira, lidergo-gaian, ekipo-lanean eta antolatze-berrikuntzan.

Basque Social Innovation Hego Korean

Basque Social Innovation-ek (BSI) haren mundu-erreferentziako sarearen administrazio-konseiluko lehen bileran parte hartu zuen, berrikuntza sozialean, Social Innovation Exchange-n (SIX), zeina egin baitzen irailean Hego Koreako hiriburuan, Seulen. BSI joan den uztailetik SIXen batzorde betearazlearen, haren zuzendaritza-organo gorenaren partaide da. Kide izan zituen euskal partzuergoak honako hauek: Portugaleko Calouste Gulbenkian, Erresuma Batuko The Young Foundation eta Nesta, Cisco Estatu Batuetako komunikazio-enpresa, Australiako Tacci, Hong Kong Institute of Contemporary Culture cum MaD Convenor eta Kanadako Social Innovation Generation.

Zuzendaritza-bilera SIX 2013 Udako Eskolaren esparruan egin zen, eta edizio honetan hiriek berrikuntzan duten rola eta



2013 Udako Eskola. Argazkia: SIX

garapen jasagarri bat bermatzeko haien tamaina aztertu zituen. Eskolak arrakastako erremintak eta hiri-berrikuntzaren ereduak identifikatu zituen, europar eta asiar hirien esperientziak eta praktika onak ezagutaraziz.

Korear eta japoniar hirietako alkateak izan ziren bertan, Mundu Bankua, Nesta, Seuleko Unibertsitate Nazionala, Yonsei Unibertsitatea, Young Foundation edo SIXeko ordezkariak, beste erakunde batzuen artean.

Euskal berrikuntza soziala, erreferente Latinoamerikan

Innobasquek parte hartu zuen, mundu guztian berrikuntza sozialean aditu direnekin batera, Bogotá (Colombia) azaroan egin zen 2013 Berrikuntza Sozialeko Nazioarteko Foroan. Beste honako hauek ere gonbidatu zituzten: Carl Von Essen Bakearen Nobel Sariduna; Dimitri Domanski, Technische Universität Dortmund-eko (Alemania) irakasle eta ikertzailea; Guillermo Aguirre, MITeko irakaslea Berrikuntzan, bai eta politikariak, enbaxadoreak, errektoreak, kazetariak eta enpresaburuak, beste aditu batzuen artean. Erregio-garapenari atxikiriko berrikuntza sozialaren praktika on bat bezala aurkeztu zuten Innobasque foroan. Antolatzaileek konexio-gune bat sortu zuten berrikuntza sozialeko ekimen berriak sustatzeko oparotasunaren bidetik Colombiari bultzatzaile egiteko. Horretarako, gai horretan erreferente diren mundu-mailako autoritateei dei egin zieten, koloniar eragile nagusiekin berrikuntza sozialak dituen esperientziak eta aukera berriak partekatze asmoarekin.




Argazkia: Berrikuntza Sozialeko Nazioarteko Foroa

Zer den Berrikuntza Sozialeko Nazioarte Foroa

Topaketa bat da eta bertan berrikuntza-erremintak partekatzen dira, eta ikerketa, dibulgazio eta berrikuntza sozialeko proiektuak sortzea sustatzen da enpresetan.

Honako hauek dira jardunaldien antolatzaileak: Colombiako Unibertsitate Nazionala, Cundinamarcako Gobernazioko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Idazkaritza; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako departamentu administratiboa (Colciencias); Ikaskuntzako Zerbitzu Nazionala (SENA); Minuto de Dios Unibertsitate Korporazioa eta Berrikuntzako Zientzia Parkea, Subsidio Familiarreko Kutxa Kolonbiarra Colsubsidio eta Bogotáko Merkataritza Ganbera.

berrikuntzarako g u n e a k



Arteché-ren ultratentsioa

Arteché Taldeak irtenbideak eta ekipoak eskaintzen ditu sektore elektrikoarentzat sortze-, transmititze-, banatze- eta industria-arloetan. Hori lortzeko, estrategia berritzaile bat dute, aldaketa-gaitasunean eta nazioarteko bazkide teknologikoen elkarlanean oinarritua, zeinek eskatzen baitu jarrera konformagaitza, eraso egiten baitie negozio-inertziei eta hazkuntza jasangarriko era berriak bilatzen ditu, produktu eta zerbitzuen eskaintza zabalduz, eta elementu desberdingarrien ekarpena eginez. Filosofia horren fruitua bezala jaio da ultra goi-tentsioko laborategi estreinatua berria, Espainian tentsio maila handiena duena eta dagoeneko nazioarteko erreferentzia baita entsegu elektrikoaren eremuan.

Instalazio hau bakarria da Espainian, ez bakarrik haren abangoardiako diseinuarengatik,

non haren fatxada metalezko leunduak arreta erakartzen baitu, baizik eta batez ere haren ekipo-entsegurako ekipamendu zientifiko eta teknologikorengatik, korrante alternoko 1,5 milioi voltiorainokoa eta 4,8 milioi voltiorainoko bulkadak sortzeko gaitasuna duena, gaur egun erabiltzen diren handienak gainditzen dituena. Beraz, geroari begiratzen dion laborategia da.

Entsegu-laborategiak I+G-eko ekipo teknikoa aukera berriz hornitzen du Instrument Transformers unitatearen gaitasun teknikoa gehitzeko, zeinen negozioa neurri tentsio altu eta ertaineko neurri duten transformadoreen gama osoa baten garapenean oinarritzen baita teknologia guztiakin. Laborategi berria baliabide ezinbestekoa gaur eguneko produktuak hobetzen jarraitzeko eta oraindik handiagokoa izango diren ekipoak garatzeko, hala nola 1200Kv-ko tentsio kapazitiboko

transformadore berriki garatua.

Gainera, instalazioek aukera ematen diote Taldeari eskakizun teknologiko handieneko merkatu-sektorean sartzeko, ultra goi-tentsioarenean, oso fabrikatzaile gutxiri murrizturik baitago munduan. Halaber, fabrikazio-gaitasuna gehitzeko aukera ematen du entsegurako bitartekoak gehitzean. Gainera, Taldeak zerbitzu-eskaintza gehitzeko aukera ematen du, beste fabrikatzaile batzuentzako entseguekin; bai eta ikerketa-proiektuetarako eta ultra goi-tentsioko beste ekipo batzuentzat isolamendu-teknologietan beharrezko erreminta bat eskura izatea ere bai. Artechek asmoa du teknologia-institutuekin eta unibertsitateekin elkarlanean aritzeko langileria teknikoaren prestakuntzarako.

INTERESEKO ZENBAIT DATU

Kokagunea	Mungia (Bizkaia)
Inbertsioa	5 milioi euro
Arkitektura-diseinua	ACXT Estudioa
Elektrizitate-diseinua	Arteche Taldea
Datak	Diseinua: 2011 Eraikuntza: 2012 Inaugurazioa: 2013
Dimentsioak	54 m luze 30 m zabal 27 m garai
Ekipamendu nagusiak	Bulkadak sortzeko generadorea 4800kV/480J Sistema jasotzaile AC erresonantzailea 1500kV/3x500kV.

ARTECHE ZENBAKITAN

Plantak
Amerika, Europa, Asia eta
Ozeania

Arreta tenikoko zentroak
80

Funtzionatzen ari diren ekipoak
150 herrialde

Enplegatuak
2.300

Salmentak 2012an
317,6 milioi euro



Innobasqueren balioa... gure bazkideak

2013ko bigarren seihilekoan
23 erakunde berri
gehitu zaizkigu eta ongi etorri esaten diegu

AUBIXA KULTURA ERAKUNDEA

Elgoibarren kokatutako aterpetxea jarduera desberdinak burutzeko prestatua hala nola, lan-bilerak, hitzaldiak, koloniak, tailerrak, jardunaldiak,...

aubixa.com

BARCELÓ BIDAIAK

Bidaia, aisia eta oporrak merkaturatzen espezializatutako enpresa.

barceloviajes.com

CAMPUS TELEFONO ZERBITZUAK

Irtenbide berritzaileak eta sortzaileak ematen dituen enpresa, azken teknologietan eta ezagutzaren kudeaketan oinarritua: softwarearen garapena, sare-sistek, komunikazioak, marketina, sare sozialak, eta abar.

campus-cst.com

CEDEMOS - MUGIKORTASUN JASANGARRIKO GARAPEN ZENTROA

Berrikuntza-zentroa (I+G+b) mugikortasun jasangarrian eta berrikuntza sozialean espezializatua, hiritarren eskaera eta beharren zerbitzura dagoena eta jasangarritasuna aregotzen duena eta gastu publikoa optimizatzen duena pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

cedemos.org

DE LA CRUZ FARMAZIA

Farmazia-establezimendua, dermokosmetikan eta elikaduran espezialista, zeinen helburua pertsonen bizi-kalitatea hobetzea baita, zerbitzuetako berrikuntzaren bitartez, farmazia-arreta bideratuz bezeroei osasunarekin zerikusia duten arazo guztiak eta bakoitza ebazten lagunduz.

delacruzfarmacia.com

EKINGUNE, PERTSONA EKINTZAILEEN ARTEAN ELKARLANA ETA SUSTAPENERAKO ELKARTEA

Elkarte pribatua, independente eta sektore-anitza, irabazi-asmorik gabea, zeinen helburua elkarlana eta lankidetzara sustatzea baita. Debabarrena eskualdeko pertsona ekintzaileen artean, bai eta haren interes ekonomiko eta sozialen defentsa ere.

ekingune.com

ELKANO GROUP

Enpresa-talde honek aukera ematen die bere bezeroei marketing integraleko partener batekin lan egiteko, hazkuntza-aukerak identifikatzen lagunduz merkatu-estrategietan eragina izanez, zeinek indartu baitezakete enpresaren egoera epe labur, ertain eta luzera, honako arloetan erantzunak emanez: merkatu-estrategiak, nazioartekotzea, marketinga, salmentak eta teknologia.

elkanogroup.com

GESTARGET GLOBAL

Bezeroen negozioa hobetzen eta zabaltzen aritzen den aholkularitza, zeinen jarduera hiru negozio-lerro desberdinetan baina elkarrekin harremana dutenetan garatzen baita: nahi den aldagaketa kudeaketa, nazioartekotzea eta korporazio-finantzak.

gestargetglobal.com

HONDAKINNO SOCIEDAD LIMITADA- ZICLA

Produktu birziklatuekin eta hondakinen kudeaketarekin berrikuntza egiten duen enpresa, enpresei eta erakundeei hondakinen kudeaketa negozio-aukera bihurtzen lagunduz, haien jarduerako ingurumena hobetzearen ardurarekin konprometitua.

zicla.com

IKASHUB CO-LEARNING LAB

Ikaskuntza-laborategia talentua bizitzan zehar garatzen aritzen dena, ideien ikaskuntza-, topaketa- eta truke-gune bat adin guztietako helduentzat eskaintzen duena, sormena, pentsamendu dibergente, espiritu ekintzaile edo komunikazio eraldatzailearekin zerikusia duten gaiak landuz.

ikashub.net

IKATZ

Argazki-denden katea Euskadin eta Burgosen kokatua zerbitzu mota desberdinak eskaintzen dituena: online errebelatzea, album digitalak, opari pertsonalizatuak, fotodekorazioa, fotomihiseak edo puzzle pertsonalizatuak modako produktuak eskaintzen dituena

ikatz.es

INTHELIN MARKETING INTEGRAL

Marketing-agentzia integratu eta integrala marketingeko agentzia independenteen munduko lehen sarekoa dena, honako arloetan fokua duena: liburuxka eta katalogoak; zuzeneko marketinga: naming-a, ikusteko identitatea eta branding-a; prentsa; kanpo-publizitatea eta formatu handia: packaging-a eta publizitatea salmenta lekuan.

intheline.net

JOINUP GREEN INTELLIGENCE

Kontsumo adimenduneko lehen komunitatea bestelako era batean gidatzearen aldeko apustua egiten duena. Mugikortasun-behar berak dituen jendea elkarrekin harremanena jartzen du elkarrekin taldeko kontsumoaren onurez goza dezaten.

joinuptaxi.com

JURITECNIA PRESTAKUNTZA ZENTROA

Erakunde pribatua, Bilbon kokatua, prestakuntza profesional arautua eta profesionaltasun-ziurtagiriak emateko baimendua, bai eta gaitze profesionalako programak ere, hori guztia enpresara bideratutako espezializazio-arlo desberdinetan.

juritecnia.net

KUPELAN KENTUCKY

Bere jarduera ostalaritza-sektorean garatzen duena sarrera-enpresa, zehazki, janari bizkorra prestatu eta saltzen.

NEOFIS TEKNOLOGIA BERRIAK

Elkano Group-eko enpresa, teknologia berriak marketingari ezartzen aritzen dena, irtenbide berritzaileak emanez bezeroak gehiago eta hobeto erakarri, mantendu eta fidelizatzeko helburuarekin.

neofis.com

NOVA EXPOSYSTEMS

Erakusketa, korporazio-irudi eta publizitateko sistemak eta elementuak fabrikatu, inportatu, esporatu, salerosten eta merkaturatzen aritzen dena salmenta-lekuan bertan.

OBLOMOV

Lanbidek eta Bizkaiko Foru Aldundiak homologatutako zentroa prestakuntza okupazionalako ikastaroak eskaintzeko jardunean dauden pertsona enplegugabetu eta langileei zuzendutako lanaren munduan txertatzea errazteko.

PERVATIK

Turismo-establezimenduak ireki, kudeatu eta antolatzen aritzen den enpresa.

PLANBIKO ELKARTEA, GUZTIEN ONGIRAKO - BIKONSULTING

Arlo desberdinetan espezializatutako aholkularitza: kalitatea, ekoizpena, kudeaketa, branding-a, igurumena, marketina, erosketak, komertziala, eta abar, beste antolaera batzuen aldeko apustua egiten duena, zeinetan guztien ongia baita helburu nagusia.

bikonsulting.com

TITAN TOLDOAK

Mota guztietako toldoak fabrikatu, konpondu eta instalatzen aritzen enpresa espezializatua.

toldostitan.com

UBIQUADS

Yarr TV plataformaren atzean dagoen enpresa zure sare sozialetako edukia era automatikoki jasotzen duena eta zure establezimendu eta gertaldietako telebisten, proiektoreen eta monitoreen bidez erakusten duena.

yarr.tv

ZUBIETXE ELKARTEA

Elkarte honen egitekoa honako hau da: bazterkeria-egoeran edo arriskuan dauden pertsonak sozialki eranstea, aukerak eskainiz eta bakoitzari prozesu bakoitzean laguntzea hiritar oso izan dadin eta haren bizi-kalitatea hobetzea.

zubietxe.org

Berrikuntzak gehitzen du Zu ere gehituko zara?



www.innobasque.com



innobasque

berrikuntzaren euskal agentzia
agencia vasca de la innovación